

Zigor eta Espetxe Betearazpen Politikaren ildo nagusiak

EAErako eredu baten bila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

ISBN:

SALNEURRIA:

Zigor eta Espetxe
Betearazpen politikaren
ildo nagusiak
EAErako eredu baten bila

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Argitaraldia:	1.a. 2006ko iraila.
Ale-kopurua:	700.
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.
Egilea(k):	
Diseinua eta diagramzioa:	Bell Comunicación, S.Coop.
Fotokonposizioa:	
Inprimatzea:	
ISBN:	
LG:	

AURKIBIDEA

Sarrera	9
1 Zigor sistemaren eta zigor betearazpen sistemaren arloko printzipioak eta jardun ildoak	11
1.1. Duintasun printzipioa	13
1.2. Herritartasun printzipioa	13
1.3. Legezketasun printzipioa	14
1.4. Parte hartzearen printzipioa	14
1.5. Lurraldetasunaren/tokikotasunaren printzipioa	15
1.6. Zerbitzu publikoaren printzipioa	15
1.7. Gizarte politiketan txertatzearen printzipioa	15
1.8. Zigor justizia biktimaren ikuspegitik begiratuta. Bitartekotza, kaltea ordaintzea eta adiskidetzea	16
2 Beste herrialdeetako esperientzien aipamen laburra	19
3 EAEko zigor betearazpen sistemaren egoera	21
3.1. Zigortuak eta espetxeratuak	21
3.2. Zentroen egoera	26
3.3. Kanpoko programak zentroetan	28
3.4. Justiziarekiko lankidetzarako zerbitzuak	30
3.5. Egungo egoerari buruzko ondorioak	31
4 Zigor betearazpen sistemaren proposamena	33
4.1. Tokien eta baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua	33
4.1.1. Egoitza-baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua	33
4.1.2. Askatasun-gabetzerik gabeko zigor-betearazpeneko baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua	38
4.2. Zigor-eta espetxe-betearazpen sistemaren ezaugarriak	41
5 Eranskina	51
5.1. Zerbitzu nagusien antolaketa administratiboa	51
5.1.1. Justizia Saila	51
5.1.2. Helduen zigor betearazpenaren zuzendaritzaren sektore-arloak	52
5.1.3. Helduen zigor betearazpenaren zuzendaritzaren zeharkako arloak	53
5.1.4. Kide anitzeko organoak	54
5.2. Kostua eta aurrekontua	56

Edozein gizarte garaikidek, bidezko antolamendua lortu nahi badu, giza eskubideak errespetatu behar ditu, justizia lortzeko nahien bertsio dinamiko gisa errespetatu ere; hain zuzen ere, errespetu horretatik dator zigor-boterea zilegitasunez artikulatzeko obligazioa, bizikidetzan sortzen diren gatazka larrienak konpontzeko azken baliabide gisa. Gaur egungo gizartearen politika eta krimen-arloko joerek, ordea, ez dituzte eginahalak egiten gatazkak konpontzeko zigorzuzenbidea baino zerbait hobea bilatzen, ezta zigor-zuzenbide hobea garatzen ere, hau da, arrazionalagoa eta giza eskubideen programa unibertsala betetzeko exijentzia asegabekoarekin errespetuzkoagoa dena. Hori dela eta, euskal administrazioek bultzatutako zigor- eta espetxe-politikaren ereduak etorkizunean bi arlo horietan gure kultura juridikoaren nazioarteko lanabesetan aldarrikatuen eta bereganatuen diren printzipio zuzentzaileen argitara jarduteko aukera prestatzen du.

Ezin da, ordea, eredia sustatu eta segituan praktikan jarri. Jakina denez, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro eskatu dio administrazio zentralari Autonomia Estatutuko 12.1. eta 10.14. artikuluetan aurreikusitako eskumenen transferentziak negoziatzen hasteko, alegia, zigor- eta espetxe-legeak betearazteari buruzkoak, baita espetxeak antolatzeari eta kudeatzeari buruzkoak ere. Hori gauzatu arte, erantzukizun eta aurreikuspen kontua da gure burua eskumena hartzeko prestatzea, eskumenaren gauzatzeak oinarri izango dituen jarraibideak eta eredia taxutuz.

Helburu horrekin, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak gaur egungo espetxesistemari buruzko ikerketa bat eta EA Erako eredu baterako proposamenak egiteko eskatu zion Euskal Herriko Unibertsitateari. Hala, ikerketa eta proposamenok abiapuntutzat hartuta egin du Sailak aurkezten ari garen agiria, Estatutuan aurreikusitako eskumenak gauzatzen dituen jarraibidetzat hartuko dituen lerro orokorren zirriborroa prestatze aldera. Dударik gabe, aurreneko saiakera da, hobetu eta garatu daitekeena, zuzenketak eta ekarpenak behar dituen; eta berau zabalduz sustatu nahi dugun eztabaida publikoari irekita dagoena.

□ Illo orokorrek bultzatzen duten ereduak honako oinarri ditu: pertsonen — delituen egileak zein biktimak — duintasuna eta eskubideak; herritarrak diren aldetik zigortutako pertsonak

dituzten eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak bermatzea, behar bezala banan-banan egokitutako gizarteratzeko aukerak eskainiz eta helburu horretarako behar diren azpiegiturak, ekipamenduak eta langileak jarritz; eta espetxeratuen arazo desberdinei erantzuteko erakundeen arteko jardueraren koordinazioa.

Zigor-sistemak kasu gehienetan zein biztanlerengan eragiten duen kontuan hartuta, zigorrak betarazteko politika gizarte-politiken arlo baten gisa definitzen da. Premisa horretatik ondorioztatzen da norbanakoaren eta taldeen benetako askatasuna eta berdintasuna sustatzen dituzten politiken beharra, pertsona guztiek politika, ekonomia, kultura eta gizarte kontuetan parte hartu dezaten errazteko asmoz, horrek delitua eraginkortasunez prebenitzea ekarriko luke eta.

Joseba Azkarraga Rodero

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua
Eusko Jaurlaritza

Sarrera

Autonomia Estatutuaren 10. artikulua 14. atalaren arabera, EAEk eskumen eskusiboa du honako honetarako: “adingabekoen babes-kuradoretzako, espetxetako eta gizarteratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, araubidea eta jarduera, arlo zibileko eta zigor- eta espetxe-arloetako legeria orokorrarekin bat”. Horretaz gain, 12. artikulua 1. atalean berretsi egiten da EAERI dagokiola “espetxe-legeria” betearaztea. Estatutuko beste hainbat aginduri jarraiki, EAERI dagozkio dagoeneko transferituak dauden zenbait eskumen (gizarte-asistentzia, osasun-hezkuntza, segurtasun publikoa, Justiziarekiko lankidetzak), zigor- eta espetxe-betearazpenarekin loturiko jendeari zeharka baina modu esanguratsuan eragiten diotenak.

Behin eta berriro eskatu dugu eskumena eskualdatzeko, baina nabarmena denez, oraindik ez dute eskualdatu. Alderdi Popularraren Gobernuak, zortzi urtean, ukatu ere egin du Estatutua garatzeari buruz hitz egiteko aukera. Berriki, Espetxetako zuzendari nagusiak eta Justizia ministroak, PSOEkoak biak ere, transferentzia ez gauzatzeko borondate politikoa berretsi dute, Autonomia Estatutuan ezarritakoari nahita muzin egin.

Hala ere, EAERako etorkizuneko zigor-betearazpenaren sistemaren diseinua lantzeari ekin zion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak, izan ere, Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren eginkizuna baita, besteak beste, “espetxe-zerbitzuen politika eta Autonomia Erkidegoko errehabilitazio-politika propioa aztertzea, ebaluatzea eta diseinatzea, bihar-etzirako alor horretako eskualdaketa aurreikusten denez” (otsailaren 12ko 44/2002 Dekretua).

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailaren zigor- eta espetxe-betearazpen politikaren hasierako zirriborroa jasotzen duen dokumentua da honako idazki hau; Sailak aginduta (2003ko irailaren 19ko Agindua, 183. EHAA), “Hainbat esparru juridikotan zigorrak betearazteko moduak aztertu eta ebaluatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatzen diren bereziki aipatuta” izeneko ikerlana egin zuen EHUK (Kriminologiako Euskal Institutuak eta Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolak), eta ikerlan hori izan da dokumentu honen abiapuntu.

Ikerlana egiteko, zehatz-mehatz aztertu ziren dokumentazioa, doktrina eta estatistika-iturriak; beste herrialdeetako esperientziak ere aztertu zituzten, eta ikerlan kuantitatiboak eta kualitatiboak egin zituzten tartean sarturiko eragile guztiekin (espetxeratuekin, senitartekoekin, epaileekin, fiskalekin, abokatuekin eta beste operadore juridikoekin, funtzionarioen sindikatuekin, espetxe-zuzendarekin, zigor- eta espetxe-arloan aritzen diren erakundeekin, eta biztanleei, oro har, inkestak eginda, komunikabideetako profesionalekin, etab.) elkarrizketa sakonak izanda; adituei kontsulta egin zitzaizen, eta arlo horretako beste esperientziak ere ikertu zituzten.

Ikerlan hori aztertu eta ebaluatu ostean, Justizia Sailak aukera izan du zigor- eta espetxe-betearazpenaren berezko eredia beharrezkoa dela berresteko ez ezik, honako hauen ildo nagusiak diseinatzeko ere: eredu horren printzipioak, helburuak, esku-hartzeak eta ezaugarriak; hori horrela izanik, Jaurlaritza osoak konpromisoa hartu du esku-hartze publikoaren eraginkortasuna bermatzeko, hain zuzen ere biktimizazioaren eta delituen, oro har, prebentzioaren helburuari begirako eraginkortasuna, modu humanitarioan, zigortuen eta, batik bat, askatasun-gabetuen eta biktimen funtsezko eskubideak behar bezala errespetatuta, eta gizarte-egoera txarrean daudenak gizarteratzearekin eta horiekiko justizia materialarekin konprometituta, bokazioz.

Jarraian, Estatuko zigor- eta espetxe-arloko legeria betearazteko eskumena bere egiteko Justizia Sailak bultzaturiko ereduaren ildo nagusiak azalduko ditugu, baita eredu hori ezartzeko baliabideen zenbait aurreikuspen zehatzago ere, betiere kontuan izanik prozesu konplexu baten ondorio izango dela behin betiko ezarriko den zigor-betearazpenaren sistema; euskal autogobernuaren erakunde guztiek, tokiko erakundeek, eta EAEko beste hainbat eragile instituzionalek eta gizarte-eragilek parte hartuko dutenez prozesu horretan, aurkeztuko dugun diseinua ez da eredu itxia eta amaitua izango, ibilbide luze baten beste abiapuntu bat baizik.

Zigor- eta espetxe-betearazpenaren sistema berria diseinatzeko eta abiarazteko, Plan Zuzendari bat landu behar da aurretik, eta Plan horretan aintzat hartu beharko dira txosten honetan adierazitako balioespenak eta ezaugarriak, martxan jartzeko beharrezkoak diren jardunak planifikatu beharko dira, sistema hori ezartzeak eta horri eusteak dakarren kostua kalkulatu beharko da, eta ahal izanez gero, inbertsio-egutegi bat ere zehaztu beharko da.

Txosten honetatik abiatutako lehenengo jardunei ekin aurretik, gure ustez, Estatuko zigor- eta espetxe-arloko legeria betearazteari buruzko EAEn politikak eztabaidatu, ezarri eta onartu behar da Eusko Legebiltzarrean, Autonomia Estatutuaren 10.14. eta 12.1. artikuluetan aurreikusitako eskumenak eskualdatzeko egutegi bat proposatu behar da, eta goian aipatu dugun Plan Zuzendaria osatu behar da, beharrezko ikerlanak eginda. Eskumena geureganatzen dugun arte, aurreikusitako eredurantz urratsak eman ditzakete EAEko erakundeek, legeriak orain esleitzen dizkien eskumenen esparruan, baita Administrazio zentralarekin adostea egoki irizitako lankidetzaren esparruan ere.

1 Zigor sistemaren eta zigor betearazpen sistemaren arloko printzipioak eta jardun ildoak

Jakin badakigu zigor- eta espetxe-arloko legeriaren eskumen eskusiboa Estatuak duela; hortaz, ezarritako sistema arau-emaile orokorren barnean hartzen da EAerako berezko zigor-betearazpen sistema diseinatzea. Hari berari tiraka, honako hau nabarmendu behar dugu: EAEko zigor-betearazpen sistemaren egungo egoera eta bilakaera baldintzatuta daude, zigor- eta espetxe-arloan izan diren lege-erreformekin, hau da, bai 1995. urtean Kode Penalaren bitartez izandako zigor-gogortzearekin, bai 2003. urteko erreforma atzerakoiekin ere. Erreforma horiek guztiek aldaketa nabarmenak eragin dituzte zigor-legean, baita espetxe-legerian eta legeria prozesalean ere, araudi horren arabera egokitu behar izan baitira.

1995eko Kode Penalak, besteak beste, honako hau ekarri zuen: espetxe-zigorren egiazko iraupena luzatzea, zigorrak luditzea ezabatuta (berezko zigorraren 1/3), berezko zigorrari zegokion gutxitze orokorrik gabe. 2000. urtean hasi zen sumatzen horren eragina, estatistiken aldetik. Alderdi Popularraren erreforma atzerakoiei dagokienez, zigorra oso-osorik betetzea ezarri zuten, zigorturiko herritarren zati handi bati eraginda; hirugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintzetan eta epeetan eragozpen gehiago jarri zituzten; 6 hilabetetik beherako zigorraldia berriro ere agertu zen; behin-behineko espetxealdia aldatu, etab. Aldi horretan, delitu-tasa antzekoa izanik, "espetxea gehiago baliatu" zela esan daiteke, herritar espetxeratuen kopurua modu esponontzialean handitu baitzen 4 urtean, 45.000tik 60.000ra (%33ko hazkundera).

2003. urtean egindako erreforma penalek (zigorrak oso-osorik betetzeko erreforma-neurri buruzko Lege Organikoa; herritarren segurtasunaren, etxeko indarkeriaren eta atzerritarren integrazioaren arloan, neurri zehatzei buruzko Lege Organikoa; Kode Penala aldatzeko Lege Organikoa...) zuzen-zuzenean eragiten diote zenbait zigorraren betearazpenari, batik bat, espetxe-zigorren betearazpenari. Izan ere, zigor penal nagusi bihurtu zen espetxea, ordezkotutako neurriak baztertuta.

Gure ustez, dagoeneko egokia izan daiteke etorkizunean garatu nahi ditugun politiken — zigor-, espetxe- eta gizarteratze-arlokoak — inguruko hausnarketari ekitea guztion artean, legez Autonomia Erkidegoari dagokion eskumena eskualdatzen den unean bertan, eta bien bitartean, ahal den neurrian, EAEko erakundearen lege-ahalmenen esparruan.

Kontuan izan behar dugu, eskualdaketa gertatzen denean, Eusko Jaurlaritzak eskumena izango duela zigor- eta espetxe-arloko legeria betearazteko, baita espetxeen eta gizarteratzearen eremuko erakundeen eta establezimenduen antolaketa, araudia eta jarraibidea ezartzeko ere. Beraz, ez da izango erakundeetara eta establezimenduetara mugatutako eskumena, baizik eta zigor-betearazpenarekin loturiko alderdi guztietara helduko da, epaileen eta epaitegien gidaritzapean, gaur egun gazte-neurrien arloko eskumena garatzen den antzera.

Horrela bada, EA Eren eginkizuna izango da Estatuari ez dagozkion zigor guztiak eta segurtasun-neurri guztiak betearaztea. Hainbat politika uztartzen dituen (lanaren, hezkuntzaren, osasunaren, gazteriaren, justiziaren, berdintasunaren, eta abarren arlokoak) gizarteratzeako zerbitzu publikoa denez, politika horien guztien inguruko eskumen-esparrua izan behar du. Diseinatu dugun sistema egituratzen duten funtsezko elementuak dira honako bi alderdi hauek: alde batetik, zigor-betearazpenaren esparru zabalenean txertatzea espetxea, honako ondorio hauek izanik: beste zigorrekiko osagarritasuna eta komunikazioa; espetxe-zigorra espetxe-erakundearekin, espetxe-gune itxiarekin ez identifikatzea (erdi-askatasunean edo baldintzapeko askatasunean bete baitaiteke); justiziaren eremukotzat hartzea, eta ez segurtasunaren eremukotzat; betearazpenaren zuzendaritza judiziala funtsezkotzat jotzea; eta zigor guztien kudeaketa administratiboa bat-egitea, espetxeak eta espetxeekin loturikoa ez daitezen bihur justiziarena ez den beste logiken araberako irlak. Bestetik, delituen prebentzioa lortze aldera jendea “birgaituko” duen justizia-politika soilik ez izatea zigorren eta neurrien betearazpena eta, batik bat, berriro heztea eta gizarteratzea lortzeko esku-hartzea gidatuko dituena; aitzitik, gidari izango den horretan uztartuko dira osasunaren, hezkuntzaren, lanaren, berdintasunaren, eta abarren arloko politikak, guztiz bat-eginda.

2003ko azaroaren 7an, zigor-arloko eta zigor-prozesalaren arloko erreformen aurka zegoela adierazi zuen Eusko Legebiltzarrak, baita honako hau ere: egindako aldaketa horiek “ez datozela bat mendebaldeko zigor-sistemetan eta Konstituzioan ezarritako printzipio politiko-kriminalarekin: berdintasunaren printzipioa, gutxieneko esku-hartzearen printzipioa, berriro gizarteratze bideratuta, banan banako tratamenduaren printzipioa, erruduntasunaren printzipioa, etab.”. Adierazpen horietaz gain, legezkoa ez den Proposamena onartu zen (43 boto alde, kontra bat bera ere ez, eta 11 abstentzio izan zituen), espetxe-arloan honako printzipio hauen erabateko errespetua adierazteko: jendearen duintasuna, zigorren humanitatea, berriro gizarteratzea, gizarte-politikak politika kriminalean txertatzea, biktimaren ikuspegi legitimoa zigor-sisteman, oro har, txertatzea, espetxe-zigorren erabilera murriztea bestelako zigorren alde, zigorra bizitokian bertan betetzea, eta sexuen arteko berdintasuna.

Dokumentu hauetan, duintasunaren, herritartasunaren, parte-hartzearen, lurraldetasunaren / tokikotasunaren, eta gizarte-politikan txertatzearen printzipioak izango ditugu aipagai.

1.1. Duintasun-printzipioa

Hamaika arauen eta ebazpenen babesa du atzean. Esate baterako, Espetxeen Lege Organiko Orokorren (ELOO) Atariko Titulua bera; espetxeetako baldintzen inguruko Europar Batasunaren 1998ko Ebazpena; espetxeratuak tratatzeko Nazio Batuen Oinarrizko Printzipioak (1990eko abenduaren 14ko 45/111 Ebazpena); torturen eta zigoren edo tratu anker eta laidogarrien prebentziorako Europako Kontseiluaren Gomendioak; Biktimentzako justiziari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Eskuliburua...

Horietan guztietan, norberarekin batera doan elementu bereiztezintzat jotzen da jendearen gizarte-izatea. Argi eta garbi geratu da espetxeratuek Giza Eskubide eta funtsezko askatasun guztiak —pentsamendu-askatasuna, adierazpen-askatasuna, iritzi-askatasuna edo sinesmen-askatasuna— baliatzen jarraitu behar dutela, espetxeratzeko ezinbestekoak diren mugak eta horren ondoriozko askatasun-gabetzea alde batera utzita.

Biktima nahiz akusatu, jende guztiaren duintasuna errespetatzea izango da zigor- eta espetxe-betearazpenaren ardatza eta muga gaindiezina, zentzu zabalenean hartuta. Duintasunaren printzipio horretatik gutxieneko esku-hartzearen printzipioa ondoriozta daiteke. Epaitua eta zigortua izango denaren eskubideak ahalik eta gutxien mugatu behar dira, ezinbestekoa den heinean soilik, eta betiere bestela lortu ezin diren delitu-prebentzioaren helburuei begira. Ezinbesteko gutxieneko esku-hartzearen printzipio horren barnean hartuko da zigor- eta espetxe-arloko esku-hartze oro, eta espetxe-betearazpenaren eguneroko erabakietan irizpide gidatzaile saihestezina izan behar du, bestelako lege-helburuek ahalbidetzen duten askatasun-mailarik handiena lehenetsita kasu guztietan.

1.2. Herritartasun-printzipioa

Askatasun-gabetua herritartzat hartzen da. Eta horren arabera, espetxeko bizimodua komunitatera bideratu behar da. Nazio Batuen Gutxieneko Arauetan “normaltasun-printzipioa”

esan izan zaio horri, hots, gizarte-zerbitzuak lehenestea zigorguneen polarizazioa eta perfektzionamendua gaindituta.

Espetxe-harremanen multzoan, ohiko zerbitzu publikoek presentzia handia izatea lortu nahi du proposatzen ari garen ereduak, normalizazioaren eta Komunitatera bideratzearen irizpidea nabarmen areagotuz.

1.3. Legezkontasun-printzipioa

Europar Batasuneko espetxeen egoerari buruzko 1998ko Ebazpenari jarraiki, espetxe-eremuan oinarritako lege bat lantzeko eskatu zitzaaien EBko Estatu-kideei, kanpoko estatutu juridikoa nahiz kexa-eskubidea araututa. Era berean, zaintza-organo independente bat aurreikustea ere eskatu zitzaien, espetxeratuek nora jo izan dezaten euren eskubideak urratuz gero.

Espetxeen Lege Organiko Orokorrak ere helburu berdinari jarraitzen dio. Zigor-betearazpenaren zerbitzu publikoek ebazpen judiziala bete eta legea errespetatuko dutela bermatzea da xedea.

1.4. Parte-hartzearen printzipioa

Zaintzapean daudenen eskubideak babesteko funtsezkoa da espetxeak kanpoko errealitateetara irekitzea. Zerbitzu publiko normalizatuak espetxeetan sartzea sustatu eta ziurtatu behar da, baita gizarte- eta zigor-arloko arazoak dituzten lagunei jarraipena egitea, laguntzea eta harrera ematea helburu duten kolektiboak eta elkarteak ere. Espetxean dagoena udalerrri bateko herritartzat ikusi behar dugu, eta hortaz, udalerrri horretan diren baliabideetarako sarbidea izan behar du.

Baina aldi berean, “espetxe barruko parte-hartzea” ere bermatu behar da, ohiko moduan baztertuak izan diren sektoreen (espetxeratuen edo senitartekoen) esanak kontuan har daitezten erabakiak hartzeko garaian. Proposamen honetan, espetxeratuen parte-hartzerako eta kudeaketarako jardueraren garrantzia defendatu dugu, espetxegunean eta horren barruko eremu guztietan erantzukizunak hartzeari begira.

1.5. Lurraldetasunaren/tokikotasunaren printzipioa

Gizarte-gertutasunari dagokio. EBko espetxe-egoerari buruzko 1998ko Ebazpenean jasotzen denez, espetxeratuaren senitartekoen eta horren gizarte-inguruaren gertuko tokiren bateko espetxeratzeari bultzatu behar da. Deserrotzea saihestea eta gizarteratzeari laguntzea dira oinarritzko helburuak.

EAEEn bizi diren edo errotuta dauden lagun guztiek, eta EAEko organo judizialen mende daudenek osatzen dute zigorturiko herritarren oinarria, transferentziari begira. EAE txikia izateak komunikazioak errazten dituen arren, txikitasun horren ondorioz, irekitzen diren zentro guztiek zigortuen bizi-ingurunean kokatuak egon behar dute, eta zerbitzuen funtzionamenduak ere gizarte-errealitatean oso errotua egon behar du.

1.6. Zerbitzu publikoaren printzipioa

Atxikitze eta babesteko eginkizunaz gain, espetxe-politikaren planteamenduaren barnean hartuta dago jendearen eta gizarte-taldearen askatasuna, berdintasuna eta eskubideen egiazko zaintza eraginkorra sustatzea, botere publikoen konpromisotik abiatutako gizarte-politika gisa (EKren 9.2. eta 25.2. art.).

Zentzategiko eta tratamenduko ideologia alde batera uztea dakar, askatasun-gabetzeko zigorra ahalik eta gutxien aplikatzeko printzipioari jarraiki. Besteak beste, bakartzea tratamendutzat hartzeari utzi behar zaio eta, gainera, prestazio-programa zabala eskatzen du.

1.7. Gizarte-politiketan txertatzearen printzipioa

Zigor-justiziaren zerbitzu publikoaren kudeaketaren sailarteko koordinazioa eta zigor-politikaren integritasuna eskatzen ditu. Kanpoko kontrolak izateko aukera ere badago, hala nola Arartekoarenak, Legebiltzarrekoak, elkarte independentetakoak eta nazioarteko erakundeak, eta operadore juridikoak tartean sar daitezke.

Halaber, zigorren eta neurrien betearazpena Justizia Sailari atxikitzea ere ezinbestekoa da, baina sailarteko baterako kudeaketaren ikuspegitik begiratuta. Alegia, besteak beste, Osasun,

Hezkuntza, Lan eta Gizarte Gaietako Sailen eskumena ere bada gizarteratzea. Era berean, beste hainbat eragile instituzionalen (Aldundiak, Udalak, Justizia Administrazioa, Abokatuen Elkargoak, etab.) eta gizarte-eragileren inplikazioa ere eskatzen du, zigorrak eta segurtasun-neurriak betearazteko egokienak diren helburuak eta baliabideak zehazte aldera.

1.8. Zigor-justizia biktimaren ikuspegitik begiratuta. Bitartekotza, kaltea ordaintzea eta adiskidetzea

Biktimak ezin ditugu alde batera utzi. Zigor-betearazpenaren fasean biktimak garrantzi handirik ez duen arren, eta espetxeratuaren zaintzako epaitegiaren aurrean, prozedura-legeak etorkizunean zehazten duena alde batera utzi gabe, egia da geroz eta egiteko handiagoa betetzen ari dela biktima; esate baterako, KPren 91.2. artikulua berrian, non biktimei kaltea ordaintzeko programetan parte hartzen duten espetxeratuek aukera duten baldintzapeko askatasunean kalera lehenago ateratzeko; edo hirugarren gradua lortzeko garaian erantzukizun zibilar ematen zaion garrantzian; edo etxeko indarkeriagatik zigortuak espetxetik ateratzen direnean biktimei jakinarazten zaienean. Hala eta guztiz ere, biktimaren ikuspegiari garrantzia emateak Zuzenbide Penalaren ikuskeran bertan eragiten du, zigor-justiziaren sistemaren ikuskeran, Justizia Administrazioaren jardun-moduen ikuskeran, etab., eta horren ondorioz, ezinbestekoa da alderdi horiek guztiak berriz ere aztertzea, baina noski, mendeku-jarrerarik hartu gabe.

Proposatzen ari garen eredu honetan, biktimaren ikuspegia eta kaltea ordaintzea indartu nahi dira, zentzu zabalenean hartuta. Indarreko legeriaren esparruan (Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntzak eta asistentzia ezartzen dituen 35/1995 Legea, eta Laguntzak Arautzeko 738/1997 Errege Dekretua), botere publikoek konpentsazio ekonomikoa bermatu behar diote biktimari, zigortuaren erantzukizun zibilararen ordezkatzaille, eta konpentsazio hori ordaintzea ere bultzatu behar dute botere publikoek, zigortua berriz gizarteratzeko aukerekin bidezko orekari eutsita.

Orobat, biktimizazioaren prebentzioko programak ere ezarri behar dira; indarreko legerian aurreikusitakoari jarraiki, zigor-prozesuan biktimaren parte-hartzea sustatu; bigarren mailako biktimizazio prozesala saihesteko baldintzak bermatu; eta azken batean, nazioarteko araudietan eta barruko legerian jasotako eskubide guztiak bermatu behar zaizkio biktimari.

Era berean, adiskidetzea eta/edo kaltea ordaintzea lortzera bideratutako bitartekotza bultzatu nahi da, gatazkak ebazteko prozesuetan salatzaileek eta salatuek protagonismo handiagoa izan dezaten, eta gatazkak ebazteko prozesu ez-judiziala indartzeko asmoa dugu, biktimarentzat egokiagoa izango den zigor-gatazkari beste irtenbide bat emateko asmoa, berrerortzearen prebentzioan eta arau-hauslearen zigor-erantzukizuna gutxitzean eragin positiboa izan dezan.

Hori guztia lortzeko, gure ustez, zuzenean Justizia Sailaren mendekoa izango den organo administratibo espezifikoa sortu beharko litzateke, zigor-justiziaren sistema osoan eragiteko gaitasuna duena eta eginkizun nagusiak honako hauek izanik: oro har, biktimizazioaren prebentzioari bultzada ematea, justizia berrezartzailearen ikuspegiari, bigarren mailako biktimizazioaren edo biktimizazio prozesalaren prebentzioari, biktimei harrera psikologikoa eta gizarte-arlokoa emateari, etab.

2

Beste herrialdeetako esperientzien aipamen laburra

Zigor-betearazpenerako sistema gehiago aztertu ditugu, eta Estatu espainolean nagusi den ereduaren oso antzekoak topatu ditugu Europako eremuan. Aldeak ez dira sistema antolatzeke moduari dagozkionak, baizik eta zigor-araudi ezberdinek eragindakoak. Oro har, kritikak oso antzekoak direla atzeman dugu, adierazitako helburuak ez baitatoz bat egiazko eginkizunekin. Eta espetxe-administrazioak eskumen handiegia duelako; horregatik, berme-aurreikuspenak ahuldu egiten dira, eta segurtasunaren baliabidea lehenesten da, antolaketaren irizpide nagusizat.

Mendebaldeko gure kultura-inguruneko hainbat espetxe-sistema aztertu ditugu azaletik eta hainbat elementu interesgarri azpimarratu nahi ditugu. Adibidez, Belgikan “kanpoko kontrolari” esker, Legebiltzarreko kideak noiznahi sar daitezke espetxeetan; Holandan, aldiz, kontrol- eta kexa-batzordeek egiaztatzen dituzte tratamenduak eta espetxeratuekin harremanetan daude. Alemanian, espetxeratuarekin eztabaidatzen dute tratamendu-programa; Suedian, errehabilitazio-zentroak indartzen dituzte, estatukoak eta tokikoak; Finlandian, espetxeratutako emakume orok lan egin behar du. Kanadan eta Estatu Batuetan, emakumeentzako zenbait zentro irekitan espetxeratuengizatea eta gizarte-garapena indartzen dituzte, modu eredugarrian.

Esperientzia solteak dira, baina kontuan izan beharrekoak. Dena den, beste espetxe-zentroetako adituek honako ondorio hau atera dute: espetxeetan errealitate bereizia, itxia eta erabatekoa bizitzen da oraindik ere, eta eragozpen handiak jartzen dituzte irekitzeko eta komunitatean txertatzeko. Ez dugu aurkitu zeharkako eredurik, sailartekorik, operadoreak eta espetxe-praktikak zerbitzu publikoetan txertatzera irekia dagoen eredurik; guk proposatu dugunaren antzeko eredurik, alegia. Baina horiei jarraitzeko eredu osorik eta alternatiborik ez dagoen arren, lortu nahi dugun zigor- eta neurri-betearazpenaren sisteman nazioarteko eremuan dauden esperientziak txertatzeari egoki iritzi diogu.

3


EAEko zigor betearazpen sistemaren egoera

3.1. Zigortuak eta espetxeratuak

2004ko uztailean, EAEko espetxeratze-tasa honako hau zen: ehun mila biztanle bakoitzeko 59 lagun (1.249 espetxeratu 2.116.000 biztanlerekin, 18 urtetik beherakoak kontuan hartuta, eta legez kanpoko egoeran bizi direnak alde batera utzita). 100.000 biztanle bakoitzeko 97 espetxeratu izango genituzke, baldin eta, data horretan, EAEn bizileku administratiboa izanik, EAetik kanpoko espetxeetan zeuden 809 lagunak aintzat hartzen baditugu. Datuak alderatuta, Estatu osoan —Katalunia izan ezik, eskumena transferitua baitu— tasa 145 lagunekoa da. Katalunian ehun mila biztanle bakoitzeko 108.


Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak emandako eta argitaratutako datu ofizialei erreparatuta, 1996. urtetik 2002. urte amaiera bitarte, EAEn biztanle espetxeratuaren kopuruari eusteko eta murrizteko joera ere izan da.

Jarraian, Barne Ministerioko Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren eta Kataluniako Generalitateko Secretaria de Serveis Penitenciaris, Rehabilitació i Justicia Juvenil idazkaritzaren datuetan oinarrituta, kopuruaren bilakaera, etorkizuneko joera eta alderaketak jasotzen dituen taulak aurkeztuko ditugu.




ESPETXERATUEN BILAKAERA ETA ALDERAKETA 2000-2004 ALDIAN, ETA ETORKIZUNeko JOERA 2004-2007 ALDIAN


KATALUNIako AUTONOMIA ERKIDEGOA



ESPETXERATUEN BILAKAERA ETA ALDERAKETA 2000-2004 ALDIAN, ETA ETORKIZUNeko JOERA 2004-2007 ALDIAN

ESPETXEETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAKO LURRALDEA





EAEko zigor-betearazpenaren sisteman espetxeraturiko biztanle kopurua Estatuko eta Kataluniako sistemetakoa baino txikiagoa da eta erritmo mantsoagoan hazten da, honako lau arrazoi hauengatik:

- Espetxeratu kopurua ez handitzeko erabaki politikoa hartzea, izan ere, EAEko espetzeak ez baitira espetze egokiak ofizialki. Espetxeetako azpiegituren egoera tamalgarria da inbertsiorik ez delako egin, eta horretaz gain, besteak beste, gatazkak saihestarren hartu da erabaki hori, antza, espetxeratuaren egoerarekiko nolabaiteko sentiberatasuna adierazi duen gizarte-testuinguru honetan, espetxeetako bizi-baldintzak nolakoak diren agertzera behartuko duten gatazkak saihestarren.
- Gizarte-babeseko eta gizarteratzeko jarduerekin konprometitutako sare instituzional eta asoziatibo aktiboa izatea, zerbitzu zehatzen kudeaketaren bitartez (hala nola, drogamendekotasunak tratatzeko programak, edo baldintzapeko askatasunean ateratakoak hartzeko zentroak), espetxealdia murriztuta. 2004ko maiatzean, EAEn espetxeraturiko gizonen %24 hirugarren graduan zegoen (Estatuko batez bestekoa %9,5 izanik)
- Autonomia Erkidegoan, Estatuarekin alderatuta, terrorismoaren aurkako politikek nolabaiteko salbuespena eragitea. Zigor luzeak dituzten EAEko biztanle zigortuen gehiengoak erkidegotik at ari da betetzen espetxealdia, erabaki politikoen ondorioz.

- Espetxeetan toki mugatua izatea. Horretaz gain, toki guztiak ez dira egokiak betearazpen-toki espezifikoen premietarako, esate baterako, seme-alaben ardura duten amentzat, gaixotasun mentalak dituztenentzat, edo lehen graduan daudenentzat. Bestalde, eta egin gabe dauden jardueretatik ondorioren bat ateratzearren, ikerlana egiteko garaian, EAEko espetxeetan 1.239 espetxeratu zeudela esango dugu (2004ko uztaileko datuak direnez, zertxobait alda daitezke). Horietatik 257 Basaurin daude; 284 Martutenen eta erdia baino gehiago, 698, Langraizen. 2005eko otsailean, 1.317 espetxeratu daude (249 prebentiboak eta 1.068 zigortuak): 298 Basaurin, 279 Martutenen eta 740 Langraiz Okan.

2004ko uztaileko espetxeratu guztietatik, 83 emakumeak ziren eta Martutenen eta Langraizen zeuden (Basaurin ez dago emakumeentzako departamenturik). %25 (327) atzerritarrak direla ere aipatu behar da; beste %25 nazionalitate espainolekoak dira, baina EAETik kanpo dute bizileku administratiboa. Gainera, lau espetxeratutik bat ijito-etniakoa da.

Honako joera hau ere atzeman dugu: zigortuak zahartzen ari dira, uste denez, zigorren iraupenarengatik eta drogen mendekotasunarengatik; izan ere, drogamendekotasunak berrerortzea dakarrela frogatuta dago.

Espetxe-ingurunean, osasun-arazo nagusiak honako hiru hauek dira: gaixotasun mentalak, drogamendekotasuna eta gaitz infekziosoak. EAEko espetxeetako toxikomanietakoko eskuhartze programetan artatutako biztanle-bolumena aztertuta, esan dezakegu artatutako biztanleen erdiak baino gehiagok (1999an, esaterako, %52,7k) laguntza eskatu zuela substantzia psikoaktiboenganako mendekotasuna gainditzeko. Eta espetxeratuen %5-8 inguruk desoreka psikotiko kronikoak dituela.

Langraiz Okako espetxean, gaur egun desoreka mental larriaren diagnosia duten espetxeratuen kopurua 50 ingurukoa da, %7 bat. Orain dela hiru urte proportzio hori %5ekoa bazen, multzo horretan ere gorakada izan dela ziurra daiteke. Eta are gehiago, EAEko beste bi zentroetan proportzio hori txikiagoa izan daitekeela ere onartuta, ziur Euskal Autonomia Erkidego osoan 100dik gorako kopurua dagoela.

Gure inguruko herrialdeetan egindako ikerlanetako kopuruak %2ren eta %8ren artekoak dira, eta Espainia osoko egoerari dagokionez, %5 inguruko proportzioa dago.

Desoreka mental larria diogunean, desoreka psikotikoaren diagnosia duten lagunez ari gara; beraz, kanpoan geratzen dira nortasunaren desorekak edo hain larriak ez diren bestelako desorekak dituztenak. Gaixotasun mentalak (eskizofrenia, esaterako) dituzten lagunez ari gara; gogo-aldartean desoreka larriak dituztenez —hala nola depresio handia; gaixotasun fisikoak eragindako desoreka psikiatrikoak —; drogen abusuak eragindako psikosi toxikoak dituztenez; edo sintomatologia psikotikoa duten beste gaitzak dituztenez, adibidez, eldarnikoa, haluzinazioak, disoziazioa, pertzepzioan gorabeherak, gertaera maniakoak edo paranoideak.

Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzaren datuen arabera, Langraizeko espetxean soilik, %54 drogazaleak dira, %40 GIBarekin infektatua dago, %52k B motako hepatitis du, eta %54k C motakoa.

Biztanle zigortuen datuak aztertuta atera dugun beste datu interesgarri bat: EAEn behin baino gehiagotan espetxeratutakoen tasa %68,26ra heltzen da.

Espetxeratutako biztanle guztien artean, emakumeen proportzioak gorabeherak izan ditu azken bost urteotan: 1999an %7,9 eta 2004ko apirilean %6,7. Beraz, batez besteko proportzioa %7,2 da, eta gehienak Langraizen daude (Basaurin ez dago departamentu espezifikorik). Erdiak 30 eta 40 urte bitarte ditu, eta emakumeen %30 hogeita hamar urtetik beherakoa da. Gehienek guraso bakarreko familia osatzen dute (%71,4) eta erdiak seme-alabak zituzten euren kargura espetxean sartu aurretik; ikasketa-maila ere txikia izaten dute, eta lan-baldintza oso txarretan aritzen dira.

Espetxeratuen artean, hainbat kolektiboren profilari buruz datu gehiago argitu dira, azken aldian, ikerlanei esker, baina hala ere, ez dugu aurkitu EAeko espetxeetan dauden atzerritarren egoerari buruzko txostenik. Erkidegoko espetxeratuen %25 osatzen dute, eta kasu gehienetan, horien profilak ez du antz handirik izaten bertako espetxeratuen profilarekin, egindako delituetan, bizitzeko moduan eta ohituretan, erlijioan eta hizkuntzan (ez baitakite gaztelaniaz).

Orain Espainiako espetxeetan dauden asko kanporatzeko zain dauden arren, une hauetan ez dugu datu nahikorik jakiteko EAEn espetxeratuta daudenetatik zenbat dauden egoera horretan, ezta “paperik” gabekoak zenbat diren ere.

Baina badakigu EAeko espetxe-sisteman dauden atzerritarrak EAEn bizi diren atzerritarrak edo EAEn errotuta daudenak direla, eta EAEn zigortu dituztela, edo Espainiako beste tokiren batean zigortu dituzten arren, hona ekartzea eskatu dutela, eta Espainian ez dutela beste inon bizilekurik edo errorik. Une honetan, Espainiako beste tokitatik EAera ekarritako atzerritar espetxeratu asko dago.

Hala ere, egindako elkarrizketen arabera, atera daiteke EAeko espetxeratuen zenbait ezaugarri, osasunaren, gizartearen, hezkuntzaren eta lanaren aldetik.

Osasunaren arloan gabezia larriak daudela erakusten dute ikerlanek. Hala bada, %40 toxikomanoak dira, %46k C motako hepatitis du, eta %20 GIB eramaileak dira. Horretaz gain, alkoholismo-maila handia dago eta berriro ere tuberkulosia agertu da. %30ek eta %70ek bitarte psikopatologiak eta nortasunaren desoreka antisozialak dituztela ikusi da.

Ezkingabeak dira gehienak —%31 soilik dago ezkondua edo bikotearekin bizi da— eta analfabetismo-maila %20koa da. Erdiak baino gehiagok ez du inoiz lan kualifikaturik egin, eta zazpitik batek ez du inoiz lanik egin.

1999. urtean, espetxeen barruan tratamendu-programetan artatutako lagunaren profila egin zuen Drogamendekotasunen Euskal Behatokiak. Horren arabera, gizonak dira nagusi (%88,7), EAEn jaiotakoak (%70,5), prestakuntza-maila txikiarekin (%58k ez du eskola-graduatu) eta lanbide-kualifikazioa ere urria dutela.

3.2. Zentroen egoera

EAeko zigor-betearazpenaren sisteman sartutako eragileak bat datoz honako honetan: espetxeetako egungo azpiegiturak eta ekipamenduak zaharkituak daude, ez dira egokiak, eta hein handi batean, Konstituzioan jasotako printzipioak eta indarreko espetxe-araudia errespetatzen duen espetxe-kudeaketa egitea eragozten dute.

Mercedes Gallizo Espetxeetako zuzendari nagusiak berriki egindako adierazpenak gogora ekartzea besterik ez dugu. Basauriko, Martuteneko eta Langraizeko espetxeetan egon ostean, zentro horien “egoera negargarria” dela onartu zuen, eta gabezia izugarriak dituztela. Martutene “ixteko” gogoia ere izan zuela aitortu zuen.

Gallizo andrearen aurretik, orduan Ararteko zen Merche Agúndez andreak ere salatu zuen espetxeen egoera kaxkarra. Hainbat txosten landu ditu gai horren inguruan, eta azken urteotan egin dituen adierazpen publiko guztietan aipatu du. 2004ko maiatzean kargua utzi baino lehen, honako hau esan zuen: “Gizarteak espetxeei begiratu behar die, eta botere publikoek kezkatu egin behar dute. Gizartearen isla dira espetxeak, eta European berdintasunean txertatu nahi duen gizarte moderno eta progresista batean ezin dira horrelako espetxeak izan”.

Lasai aski esan dezakegu: epe ertain eta luzean, pixkanaka-pixkanaka, egungo espetxe-zentroak ordezkatzera izan behar du espetxe-politikaren helburuetako bat, epe luzera, egungo espetxeak ixteko —baina horrek ez du esan nahi egungo kokapenak nahitaez alde batera utzi behar direnik—, eta zentro txikien sare bat (ohikoak, gizarteratzeak, osasun-arlokoak, psikiatrikoak, mendeko unitateak eta espetxeaz kanpoko unitate sortzeko, lurraldean behar bezala banatuta (zentro motaren arabera, irisgarritasun egokiaren irizpideari jarraiki) eta banakako premien araberako ezaugarri espezifikoko eta guzti.

Kontuan izan behar dugu azken urteotan administrazio zentralaren politika alde batera uzteko politika izan dela, bai EAEko azpiegiturei eta ekipamenduei dagokienez, baita EAEko egitura horietan lan egiten duten langileei dagokienez. Egoera tamalgarria zertxobait arintzeko ezinbestekoak ziren neurriak ere ez dira hartu, osasunaren eta hezkuntzarekin loturiko oinarritzako eremuetan, esaterako, edo espetxeetako langileei eman beharreko laguntzaren arloan.

Basauri (Bizkaia)

Basauriko Prebentiboen Espetxea honako hauek osatzen dute: Departamentu Orokorra (73 gela), modulu 1 (26 gela), erizaintza (19 gela) eta Sekzio irekia (14 gela). Kultura-ikasgelan 4 ikasgela daude, irradi-emisora, informatika-gela eta liburutegia. Pinturako eta zurgintzako prestakuntza-ikastaroak egiteko ikasgela bana ere badaude, baita kartoiaren eta erlojuen tailer bana ere. Zerbitzu komunaren artean, sukaldea, garbitegia, ekonomatoa, sendagilearen kontsulta-gelak eta ile-apaindegia daude.

Modulu bakoitzean jantoki bat, dutxak, patioa eta telebista-aretoa daude. Gela gehienak kolektiboak dira, eta 30 m² ingurukoak dira. Kanpoko komunikazioen eremuan sartzen dira funtzionarioen eta paketeen bulegoa; barruko eremuan, aldiz, komunikazio berezietarako (vis a vis) 4 lokal, abokatuekin komunikatzeko 3 solastoki eta epaileekin komunikatzeko solastoki 1 daude. Horietaz guztietaz gain, eremu burokratikoak eta Administrazioaren bulegoak daude.

Zentro horren plantillan 156 langile daude. Gehiengoa (126) zaintzako eta administrazioko langileak dira, 25 teknikariak dira, eta bost zuzendaritzako langileak. Basaurin, funtzionario/plaza ratioa 1,6 da. Zentro horretako giza baliabideen kostua 48.150.043,98 euro izan zen, guztira, 2003. urtean.

Langraiz Oka (Araba)

Gerra Zibilean “lan-esparrua” izandako eraikinaren egitura baliatuta, 1981. urtean inauguratu zuten zentro hori. 560 gela ditu, banakakoak gehienak, 8 m²-koak. Emakumeen sekzioko zenbait gela handiagoak dira, eta gizonen erizaintzan lau gela komunitario ere badira. Espetxe horretan 256 lagunek egiten dute lan. Gehientsuenak, 214, zaintzako eta administrazioko lanetan aritzen dira, 36 teknikariak dira, eta 6 zuzendaritzakoak. Funtzionario/plaza ratioa 2,7 da; Kataluniako ereduan egokituz jotako ratioa gainditzen du horrek, funtzionario bakoitzeko 2,2 espetxeratu izan behar dela uste baitute Katalunian.

Martutene (Gipuzkoa)

Hiru modulu eta ehun gela ditu, eta gehienak partekatuak dira; lagun 1 edo 2, edo gehiago hartzeko diseinatuak dira. 9m²-tik 20 m²-ra bitarteko gelak dira. Jarduera guztiak mistoak dira, produkzioko jarduerak ere bai, gimnasia izan ezik; produkzio-tailerretan lan egiten duten espetxeratuek soldata jasotzen dute.

Zentro horretan ere, langile gehienak zaintza-lanetan aritzen dira (149 langiletik 120). Teknikariak 24 dira eta zuzendaritzan 5 langile aritzen dira. Funtzionario/plaza ratioa 1,9 da.

3.3. Kanpoko programak zentroetan

Interesgarria izan daiteke zentroetan egun garatzen diren programen berri izatea. Zigortuei babesa emateko lanetan aritzen den gizarte-sare kezkatu zabala badagoela adierazten dute programa horiek. Azken urteotan, elkarre horiek hamaika eragozpen izan dituzte espetxeetan sartzeko, baina hala ere, lanari eusten diote. Den-denak aipatzea oso zaila dela jakinik, hona hemen zenbait.

Bidesari elkarteak lanbide-prestakuntzako eta lanerako prestakuntzako ikastaroak eta askotariko tailerrak garatzen ditu Basaurin; horretaz gain, gizarteratzeko programaren ardura ere hartu du, harrera-etxebizitzena, alegia. Izangai taldeak laneko/prestakuntzako ekintzak bultzatzen ditu, baita kulturaren eta aisialdiaren arlokoak ere. Zubietxe elkarteak ere lan-munduan sartzeko prestakuntzako eta gizarte-trebetasunetako programetan laguntzen du.

Etorkintza, Lagun Artean eta Gizakia Fundazioa (Proyecto Hombre) elkarteak osasun-programetan eta drogazaleentzako programetan aritzen dira, espetxetik kanpoko unitateetan

terapiari jarraipena egiteko jardunak garatuta. Bilbo-Etxezabal taldeak espetxeratu atzerritarre ematen die arreta. Adsis-Bestalde elkarteak Langraizeko eta Basauriko espetxeratuak gizarteratzeko hainbat programa garatzen ditu, eta Santutxun badu eguneko zentro garrantzitsu bat ere. Bestalde, espetxean egondako jendearentzat lana bilatzen laguntzeko eta prestakuntzako zentroa da Zubiko.

Elkarte eta GKE horietako batzuk Langraizeko espetxean ere aritzen dira. Langraizen kasuan, Goiztiri elkartearen programa aipatu nahi dugu. Elkarte horren helburu nagusia honako hau da: emakume espetxeratuak gizarteratzea eta laneratzea, eta horretarako hiru laguntzako etxebizitza bat du. Gao Lacho Drom programa ere aipagarria da, hau da, ijito-etniako jendeari arreta emateko programa. ADAP programa emakumeei zuzentzen zaie, hain zuzen ere baimen arruntak lortzeko familia-loturarik ez duten emakumeei. Gernika Gogoratz Fundazioak garatzen duen lana ere nabarmentzekoa da, bitartekotzaren eremuan.

Eusko Jaurlaritzak ere garatzen ditu hainbat programa instituzional 1994. urtean sinaturiko Hitzarmenaren barnean, askatasun-gabetuak berriro hezteko eta gizarteratzeko helburuak bermatzearen.

Hitzarmen hori ia ez da garatu, Administrazio zentralak nahi izan ez duelako, baina egin den lana osasun-arlokoa izan da. Urtean zehar, ospitaleratzeak, espezialistekin kontsultak, larrialdiak eta diagnosi-probak artatzen dira.

Drogamendekotasunei arreta emateko arloan, Osakidetzak hartu ditu bere gain Metadona kontrolatzeko eta banatzeko azterketak. EAeko espetxeetan badira Toxikomanietan Eskuhartzeko Ekipoak, elkarte pribatuetakoak (EDEX Basaurin, AGIPAD Martutenen eta Lur Gizen Langraizen); xiringak trukatzeko programak garatzen dituzte eta antza, Langraizen laster hasiko dira Diazetimorfina modu kontrolatuan banatzen, Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzak finantzatuta.

Foru Aldundiek eta EAeko hainbat udalek ere garatzen dituzte programak. Esate baterako, Gipuzkoan, Aldundiarekin hitzarmena duen gizarteratzeko zentro espezifikoa da Loiola Etxea; 15 toki ditu, eta toki bakoitzak hilean 559 euroko kostua du.

Araban, honako hauek dituzte hitzartuta: ADAPek kudeatzen duen emakume espetxeratuentzako harrera-etxebizitza bat, Salhaketak kudeatzen duen baldintzapeko askatasunean ateratakoentzako etxebizitza bat, eta Hiesaren Aurkako Batzordeak kudeatzen duen gizon espetxeratuentzako harrera-zentro bat; azken horretan, hileko egonaldiaren kostua 726,60 eurokoa da, batez beste.

Bizkaiko Foru Aldundiak ez du diru-partida espezifikorik espetxeratuei laguntzeko edo harrera emateko programetarako, baina bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabide orokorretan sartzen ditu.

Gipuzkoan, Alkoholiko Anonimoak taldearen, Espetxe Pastoralaren edo Remar taldearen lana dira aipagarri. Azken buruan, gizarte-konpromiso zabalaren adierazgarri dira, nahiz eta ez ditugun sartu elkarte-sare anitz eta zabal horretatik gauzatzen diren programa eta jardun guzti-guztiak, instituzioen finantziazioa izan ala ez.

3.4. Justiziariekiko lankidetzarako zerbitzuak

Ikuspegi materialetik begiratuta, eta txosten honetan defendatzen ari garen ikuskerari jarraiki, EAEn zigor-neurriak aplikatzeko eta betearazteko garaian organo judizialei aholkularitza ematearekin loturiko zeregina betetzen duten zerbitzuak ere zigor-betearazpenaren sistemaren zati dira. Zerbitzu horien aholkularitzako zeregina ez dago arautua zigor-legerian eta legeria prozesalean, eta hala ere, zerbitzuen ekarpenak balorazio oso positiboa izaten du.

Justiziariekiko Lankidetzarako Zerbitzuen (JLZ) antolaketa, kudeaketa eta zuzendaritza EAEn berezko organo administratiboei dagokie. Giza Eskubideen eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren organigramaren barnean hartuta, JLZetan honako zerbitzu hauek sartzen dira: Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuak (ALEZ), Zigorrek Betearazteko eta Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzuak (BGLZ) eta Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ).

ALEZen eginkizun eta zeregin nagusia atxilotuari edo auzipetuari laguntza eta/edo tratamendua ematea da, gizarteratzeko prozesuan babesa emanda honako lan hauen bitartez: laguntzea, informazioa ematea, edo lan-planak osatzea atxilotuarekin edo auzipetuarekin batera.

Horretaz gain, atxilotuaren edo auzipetuaren egoera pertsonalaren eta gizarte-arloko ezaugarrien berri eman behar dio dagokion Instrukzioko edo Zigor-arloko Epaitegiari, eta espetxetik ateratzeko edo berriz gizarteratzea errazteko neurriak aplikatzeko dauden gizarte-baliabideen inguruko informazioa ere eman behar die epaitegiei. 2004. urtean, zerbitzuaren kostua 276.264 euro izan da, eta hamar langile aritu dira.

BGLZren egitekoa da organo judizial eskudunei informazioa ematea, zigorrek betearazteko. Epaia eman behar duen epaitegiak edo auzitegiak neurriak hartzeko funtsezkoak diren

datuak eskaintzen ditu, eta gizarteratzeko lanak proposatzen ditu, organo judicial eskudunaren eskakizunak betetzen ote diren jakiteko jarraipena eginda. Aurtengo aurrekontua 314.874 eurokoa du.

Biktimari laguntza eta babesa ematea da BLZren eginkizuna, biktimak eskatzen duenean. Informazioa ematen zaio, eta beren eskaerak bideratzen dira, bigarren mailako biktimizazioa leuntzeko ahalegina eginik. Hamalau lagunek osatzen du zerbitzu hori, eta urte honetarako zerbitzuaren kostua 447.069 euro da.

Biktimaren interesari gaur egun ematen zaion arreta nabarmendu behar dugu, urte askotan baztertuta egon ostean. Adierazpenak hamaika izan dira, baina idazki lotesle bakarra 2001eko EBeko Esparru Erabakia da, non biktimen eta beren eskubideen onarpenari eta errespetuari erreferentzia zabala egiten zaion.

Hortaz, gure ustez ezinbestekoa da biktimen ikuspegia txertatzea, lege-hausleari dagozkion bermeak zainduta eta interes publiko pilatuak alde batera utzi gabe. Biktimen politikak gizarte-politikaren parte izan behar duenez, organo administratibo bat izatea egokitzat har daiteke, biktimei informazioa eta aholkularitza emateaz gain, auzipetuaren eta biktimaren artean gatazkak ebazten lagundu, eta biktimek zigor-prozesuan parte har dezaten sustatuko duena.

Hala ere, eginkizun horiek geure gain hartzea nahi genukeen arren, legerik ez dagoenez oso zaila da hori gauzatzea.

3.5. Egungo egoerari buruzko ondorioak

Zigor- eta espetxe-betearazpenaren egungo sisteman aldatu beharreko ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Espetxe-zigorra nagusi izatea eta espetxean bertan bete behar izatea, espetxea ez den beste zigorrik eta neurririk ia ez baita aplikatzen, eta espetxe-zigorra erdi-askatasunean eta baldintzapeko askatasunean oso kasu gutxitan betetzen baita.
- EAEn ez dago espetxe-baliabiderik zentro psikiatrikoetan sartzeko segurtasun-neurriak betetze aldera.
- Espetxe-administrazioak ia ez du baliabiderik segurtasun-neurriak betetzeko, zigorrak bertan behera uzteko eta komunitatearen mesederako lanak egiteko.

- Espetxe-zentroak zaharkituak daude guztiz, instalazioak ez dira batere egokiak, ezta espezifikoak ere, eta masifikatuak daude.
- Espetxeetako langileek kualifikazio txikia dute, ez dute motibaziorik eta soldata ere txikia dute, eta gehienbat zaintza-lanetan aritzen dira, tratamenduetarako teknikarien proportzioa oso txikia izanik.
- Espetxeratuek osasun fisikoko eta mentaleko arazo larriak dituzte, eta osasun-arreta eskasa jasotzen dute.
- Emakume espetxeratuen egoera are okerragoa da.
- Espetxe-zigorra betearaztean individualizatzeko gaitasunik eza, tratamendua emateko langilegabeziak eraginda, hein handi batean.
- Espetxe-zigorraren betearazpenak ez du lotura handirik aurreragoko gizarteratzearekin.
- Espetxeko segurtasun-alderdiak lehenesten dira, tratamenduari eta osasunari dagozkion alderdien kaltetan.
- Espetxe-erakundea ez da batere gardena.

4

Zigor betearazpen sistemaren proposamena

4.1. Tokien eta baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua

Esan gabe doa espetxeratuaren kopurua eta tipologia bat-batean alda daitekeela, eta etorkizuneko aurreikuspenak egitea lan zaila izan daitekeela.

Dena den, hainbat datu hartu behar dira aintzat etorkizuneko joeraren aurreikuspena egiteko. Hona hemen garrantzitsuenak: delitu-jarduera ezaguna; atxilotu kopuruaren gaineko poliziaren jarduna eta arrazoiak; erabaki judizialak, dela espetxealdi prebentiboetan, dela zigorretan; Espetxeetako Zuzendaritza Orokorren erabakiak, zigortuekin espetxea ez den beste neurriak baliatzeko garaian; Espetxeratuaren Zaintzarako Epaileen praktika, espetxea ez den beste neurrietarako sarbidea edo indultuak sustatzeko garaian, edo zigortu atzerritarren kasuan, Estatu espainoletik kanpo zigorra betetzea sustatzeko garaian.

Lege-aldaketak ere kontuan izan behar dira —delitu berriak definitzen dira, espetxea ez den beste neurrietarako sarbidea murriztu egiten da—, erabakigarriak baitira zigor-betearazpenaren sistemarentzat. Halaber, maila bakoitzean erabakimena duten eragileen jarduteko moduetan dauden aldeak ere ezin dira alde batera utzi. Adibidez, zigorra emateko garaian epaileak eta fiskalak bat ez datozela ziurtatu behar da, eta nahierara jokatzeko aukera badutela, askatasun-gabetzea ez den neurriak aplikatzean.

4.1.1. Egoitza-baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua

Beharrezkotzat jotzen diren tokiak kalkulatzeko ahalbidetuko diguten kopuruei dagokienez, Barne Ministerioak argitaratutako datuetara jo behar dugu. Datu horien arabera, 2004. urtearen erdialdean, espetxeratuaren kopurua 60.000 inguru zen Estatuan. Azken 5 urteotan, urtean batez beste %6ko gorakada izan da (urtean 3.000 lagunetik gora).

EAEren kasuan, 2004ko uztailean 1.232 lagun zeuden hiru espetxeetan; horietatik 811k bizileku administratiboa erkidegoan dute (148 atzerritarrak dira) eta gainerakoek, 421, ez.

Horretaz gain, Estatuko espetxeetan dauden 775 lagunen bizileku administratiboa EAEn dago. Horrela bada, horiek guztiak Erkidegoko espetxeetan egongo balira, une honetan 1.586 toki beharko genituzke, eta espetxealdi prebentiboan dauden bertakoak ez direnak ere kontuan izan behar dira.

1.600dik gorako gehienezko toki kopuru hori erreferentziazat hartuta, adituek faktore zuzentzaileak esaten dieten horiek aztertu behar dira; gure kasuan, bi faktore izango dira.

Alde batetik, zigor-arloan egin daitezkeen lege-erreforma berriak, zigorraren iraupena ahalik eta gehien murriztearren (Eusko Legebiltzarrak eskatua du dagoeneko) eta hirugarren gradua lortzeko eragozpenak ezabatzearren.

Bestetik, ezin dugu ahaztu askatasun-gabetzeko zigorrak eta segurtasun-neurriak aplikatzearen ordez indarreko Kode Penalean jasotako ordezkotako neurriak aplikatzearen alde egiten duela hautatu dugun eredu honek.

Beraz, espetxe-betearazpenaren etorkizuneko sisteman (zentro arruntak, irekiak eta mendeko unitateak) toki kopuru hoberena 1.100 eta 1.500 artekoa izango litzateke.

Gaur egun 1.052 toki ditugula kontuan izanik, eta drogamendekotasunak tratatzeko kanpoko programetako 100 bat toki gehituta horiei, tartearren barruan gaudela konturatuko gara, gehienez ere 350 toki sortu behar izanik.

Argi eta garbi utzi nahi dugu toki bat diogunean bizilekua EAEn duen norbaiten gainean ari garela, eta atzerritarren kasuan, familia erkidegoan errotua duena, edo EAEkoa izan gabe ere, espetxealdi prebentiboan dagoena. Bestalde, eta askatasun-gabetuak propio eskatzen duen kasuetan izan ezik, toki batek lagun bat ez ezik, gela bat ere eskatzen duela pentsatu behar dugu (Zigor Erreformaren 13. art.).

EAEn beharrezkoak diren askatasun-gabetzeko tokien gutxi gorabeherako kalkulua	
EAEko espetxeetan dauden EAEko biztanleak	775
EAEtik kanpoko espetxeetan dauden EAEko biztanleak	811
EAEko espetxeetan dauden bertakoak ez diren prebentiboen kalkulua	88
EAErako askatasun-gabetzeko tokien gehieneko kopurua	1.674
Faktore zuzentzaileen arabera, kalkulaturako tokien proposamena	1.100-1.500
Erregimen irekiko guztizkoa: gizarteratzeko zentroak, mendeko unitateak, drogak hartzeari uzteko zerbitzuak, edo bestelakoak (%30-40)	400-500
Erregimen arrunteko guztizkoa: zentro arruntetan eta osasun-unitate espezializatuetan (%60-70)	700-1.000
Erreferentzia-data: 2004ko uztaila	

Erregimen irekian dauden lagunentzako hiru Gizarteratze Zentro eraikitzea proposatu da, 75 eta 150 toki artean dutela, gizonezko helduentzat eta emakumeentzat, lurralde bakoitzean bat. Eraikin horiek diseinatzeko garaian ez zaie egungo eraikitze-ezaugarriei jarraituko, baina gune irekien (lorategien) garrantziari eutsiko zaio. Ingurune Irekiko Ekipoak zentro horietan egongo dira, askatasuna kentzen ez duten zigorrak, segurtasun-neurriak eta baldintzapeko askatasuna betearazteko eta horiei jarraipena egiteko.

Zentro horietan, berebiziko garrantzia izango du kokapenak; herrigunean edo herrigunetik gertu egon beharko dute, komunikazio onak dituztela, izan ere, erregimen irekiak komunitatean gizarteratzea eta lanaren, familiaren, kulturaren, hezkuntzaren... arloko ingurunearekin lotura estua baitakartza.

Zigorra betetzeko banan banako programetan oinarritu beharko du zentro irekiaren funtzionamenduak. Hori dela eta, laneko ekipoen funtsezko zereginak honako hauek izango dira: banan banako lan-programen harrera eta ebaluazioa egitea, programak osatzea eta berrikustea, laguntzea eta jarraipena egitea, eta baliabideak bilatzea eta garatzea. Zentro horietan beharko den langile kopurua kalkulatu aldera, baliagarria izango zaigu Kataluniako Generalitatek horrelako zentroetako ekipoen osaera dagoeneko aztertu duela jakitea. Katalunian ezarritako ratioen arabera, 120 toki bakoitzeko psikologo bat behar da; gizarte-langileen kasuan 1/60 da ratioa; orientatzaileen eta hezitzaileen kasuan, 1/30; eta legelarien kasuan, 1/120.

Gizon heldu zigortuentzat eta prebentiboentzat zigor-betearazpeneko 2 zentro arrunt berri eraikitzea ere premiazkoa dela uste dugu, 250 eta 350 toki artean dituztela, edo bestela, bigarren aukera izan daiteke 500 eta 700 toki arteko zentro bat eraikitzea, betiere espetxeratu gehienak Bizkaikoak eta Gipuzkoak direla kontuan izanik; hala ere, EA Eren kasuan tarte handirik ez dagoenez, Araban ere koka daiteke ohiko erregimeneko zentroren bat, baldin eta baimena lortuta ateratzen direnentzat eta familiek bisitak egiteko komunikazio-sistema egokia aurreikusten bada.

Zentro arruntak modulutan bereiziko dira, gehienez ere 50 laguneko modulutan; hortaz, barruko sailkapenaren beharretara egokitu ahal izango dira guneak (jendea maiz ateratzen den ala ez kontuan hartuta, zigor mota, tratamenduaren beharrak, eta bestelakoak) eta aldi berean, segurtasunaren eta prestazioen maila ere talde bakoitzaren arabera egokitu ahal izango da.

Aukera gisa, zentro arrunt bakoitza honela banatzea aurreikusten da: erregimen arrunteko 3 modulu (120-150 toki); irteteko baimena dutenentzat, modulu erdi-ireki 1 (40-50 toki); prebentiboentzako 2 modulu (80-100 toki); iragaite-modulu 1 (kasuan kasu, bakartzea) (40-50 toki) eta drogarik gabeko unitate bat (40-50 toki).

25 edo 28 urte arteko gizon gazteak hartzeko zentro berri bat eraiki behar delakoan gaude, 50 eta 100 toki artean izanik, eta hainbat departamentu dituela ohiko erregimenerako, prebentiboentzako eta erregimen irekirako. Zentro horretan, hezkuntza-programei arreta berezia eskaini beharko litzaieke, eta adin-tarte horretako ezaugarriak kontuan hartuta, normaltasun- eta malgutasun-irizpideei jarraiki antolatu zentroaren bizimodua.

Era berean, emakumeentzako ere 100 eta 150 toki artean izango dituen zentro berri bat eraiki beharko litzateke, gazteentzako, prebentiboentzako eta seme-alabak dituzten amentzako departamentu eta guzti. Kokapenari dagokionez, baimenekin ateratzen direnei eta bisitaldiak egiten dituzten senitartekoei garraiobide egokia bermatzeko oinarrizko irizpidea gogoan izan beharko da.

Lau zentro arrunt aipatu ditugu, hortaz, baina horrek ez du esan nahi egungo zentroen antzekoak izango direnik. Are gehiago, oso bestelakoak izatea da gure proposamena, bai arkitekturaren aldetik, bai programen aldetik hezkuntzakoak nahiz osasunekoak, bai segurtasunaren aldetik, baita diziplina, komunikazioak eta harremanak bideratzeko moduaren aldetik ere.

Ospitaleko bi unitate ere sortu behar dira (orokorra eta psikiatrikoa), ospitale- eta osasun-sare publikoarekin lotuta, ospitaleratzeetarako, tratamendu espezializatueterako eta, behar izanez gero, egonaldi luzeetarako.

Ospitaleko Unitate Orokorrari esker, poliziak zaintzen dituen egungo erizaintzatan eta ospitale-unitatetan sortzen diren arazoak gaindituko lirateke, eta egun badagoen zentroren bati erantsitako pabilioia izango litzateke, 25-40 toki izanik. Unitate Psikiatrikoan 25 eta 60 lagun artean sartuko lirateke, eta hori ere egungo ospitale psikiatrikoren bati erantsita egongo litzateke.

Bukatzeko, Zigor Erreformaren 165. artikuluan aurreikusitako Mendeko Unitateak sortzea ere hartuko litzateke barnean, espetxeetakoak ez diren elkarrekin edo erakundeekin hitzarmenak sinatuta, hirugarren graduan sailkatutakoek zigorra betetzeko beste moduren bat izan dezaten (egoera berezietarako, hala nola haurrak dituzten amak, gazteak, atzerritarrak, etab.). Edukiera txikiko etxebizitzak izango dira, komunitatean txertatuta, inolako bereizgarririk gabe. Ez dira espetxetzat hartuko, baina Gizarteratzeko Espetxe Erakunderen baten mendekoak izango dira.

Gaur egun, EAEn Mendeko Unitate bakarra dago: 28 urte arteko gazteentzako Ametzagaña Fundazioaren Zentroa, baina badira beste hainbat erakunde eginkizun berdina betetzen dutenak, hala nola harrerako eta laguntzeko etxebizitzak; dena dela, izaera juridikoa berdina ez denez, espetxetik ateratzeko prozesuak ere bide juridiko ezberdina egin behar du. Zentro arruntetan, etxebizitzarik eta kanpoko laguntzarik ez dutenak baimenekin eta baldintzapeko askatasunarekin atera ahal izateko, egoitza-baliabide nahikoak izatea bultzatu beharko lukete espetxeekin loturarik ez duten administrazio eskudunek.

Era berean, drogak hartzeari uzteko Programen esparruan hirugarren graduan daudenak espetxetik ateratzea lortzeko, Zigor Erreformaren 182. artikuluan aipatzen diren drogak hartzeari uzteko espetxetik kanpoko baliabideak ere indartu beharko dira.

Azken batean, guztira 1.100 eta 1.500 toki artean dira, ezinbestekotzat jo direnak alegia; horietatik ia heren bat hirugarren graduan daudenentzako izango dira, izan ere, onartua baitago erregimen irekia —askatasun-gabetzeko zigorra betetzeko modua izaki— egokiagoa dela espetxe arrunta baino, zigortuen bizimodua markatzen eta erabakitzen duten bazterketa-egoerak gainditze aldera.

Egungo sistemak gabezia ugari ditu, zentro horien ezarpenari inolako arretarik jarri ez zaion seinale, nahiz eta espetxe-legeriaren eta araudien barnean hartuta egon. Izan ere, ezin dugu ahaztu zigorra betetzeko garaian, zigorra aplikatzen hasten den unean bertan hasita, espetxeratuari gizarte-bizitzara pixkanaka itzultzeko aukera bermatzeko ezinbesteko neurriak hartu beharko liratekeela.

4.1.2. Askatasun-gabetzerik gabeko zigor-betearazpeneko baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua

Ingurune Irekiko hiru diziplina anitzeko Ekipo sartzen dira proposamenean (Justizia Sailaren Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren Ordezko Zigor Neurrien Zuzendaritzaren mendekoa organikoki), epaileei eta epaimahaiei laguntzeko honako hauen betearazpenean:

- Komunitatearen mesederako lanen zigorrak (KParen 49. art.).
- Segurtasun-neurriak, KParen 95. artikulua eta hurrengoak (zentro psikiatrikoetan, drogak hartzeari uzteko zentroetan eta heziketa bereziko zentroetan sartzea, tratamendu ambulatorioak, prestakuntza-programak).
- Betearazpena bertan behera uzteko betebeharrak (KParen 83. art.).
- Baldintzapeko askatasunean ateratako ei babesa ematea (KParen 90. art.).

Horretarako, komunitatean dauden baliabide normalizatu publikoak eta pribatuak baliatuko dira, betiere lanak, osasun- eta gizarte-arloko tratamenduak, eta prestakuntza-programak betetzeko behar diren baliabideak hornitzea Administrazio publikoaren egitekoak direla jakinda.

Ingurune Irekiko Ekipo (IIE) bakoitzean honako hauek izango dira: koordinatzaile bat, Ordezko Zigor Neurrien zuzendariaren aurrean erantzungo duena eta Justizia Administrazioarekiko komunikazioaren erantzule; psikologo bat, legelari bat eta gizarte-langile bat, eta esleitutako eginkizunak zenbat lagunentzat garatu behar diren arabera, IIE bakoitzean behar beste hezitzaile egongo dira, beharrezko langile administratiboek gain.

IIEetako langile guztiak euskal Administrazio publikoko funtzionarioak izango dira, baina aukera egongo da hezkuntza-lana beteko duen irabazi-asmorik gabeko erakunderen bat kontratatzeko, unean uneko premien arabera.

IIE horiek, fisikoki, aurreikusitako hiru Gizarteratzeko Zentroetan kokatuko dira, ZERen 163. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

Eginkizunak gauzatzeko garaian, ezinbestekotzat jotzen da IIEak Ekipo Psikosozial Judizialekin koordinatzea, organo judizialei aholkularitza emateko zereginen; era berean, espexeratuen zaintzako epaitegien zerbitzura dauden Ekipo Teknikoekin ere koordinatu beharko dute, baldintzapeko askatasunean ateratakoei babesa ematen eta segurtasun-neurriak betearazten; baita Biktimari Laguntzeko Zerbitzuekin ere, justizia berrezartzaileko prozesuei laguntzearen.

Egun eginkizun horietan ari diren profesionalek egindako balorazioetatik abiatuta, IIEen eginkizunak behar bezala garatzeko hezitzaile/zigortu ratio hoberenak honako hauek dira:

- Baldintzapean ateratako 50 lagun bakoitzeko hezitzaile 1.
- Hezitzaile 1 edo 2, zentro psikiatrikoetan, drogak hartzeari uzteko zentroetan eta heziketa bereziko zentroetan sartutakoek jarraipena egiteko.
- Hezitzaile 1, askatasuna kentzen ez duten segurtasun-neurrien edo zigorra bertan behera uztearen esparruan, tratamendu ambulatorioan edo prestakuntzako programetan dauden 50 lagun bakoitzeko.
- Hezitzaile 1, komunitatearen mesederako lanak egiteko zigorra duten 40-50 lagun bakoitzeko.

Lan honen 2. atalean zehazturiko zigorrei eta neurriei buruzko datuen arabera, eta 2002ko datuak besterik ez ditugunez, 2.176 lagunek (guztira 4.645 izanik, hots, %47) dute 4 urtetik beherako espexze-zigorra, eta 410ek (%8,9) 2 hilabetetik gorako isunaren zigorra. Datu horiek garrantzitsuak dira, espexze-zigorra bertan behera uzteko zenbat kasu gerta daitezkeen eta isuna ez ordaintzeagatik komunitatearen mesederako lanen zenbat zigor ezar daitezkeen kalkulatzeko. Hala ere, ezinezkoa da gehiago zehaztea, zeren jakin beharko baikenuke, alde batetik, zigor horietatik guztietatik 2 urtetik beherakoak zenbat diren eta horien artean, bertan behera uztea eragozten duten aurrekariak zenbat lagunek dituzten; eta bestetik, 5 urtetik beherako zigorretatik zenbat kasutan frogatu den toxikomania zegoela, KParen 87. artikulua edo segurtasun-neurriren bat (KParen 104. art.) bertan behera uztea ahalbidetzeko.

Eskura ditugun datuek erakusten dutenez, 2004ko maiatzean, EAeko espexxeetan 332 lagun zeuden 6 hilabete eta 3 urte bitarteko zigorrak betetzen. Ikus daitekeenez, datu horietan oinarrituta ezin da ondorioztatu zein den bertan behera uzten den espexze-zigorren proportzioa, datuak jasotzeko sistema dela eta. Eta gainera, 87. artikuluaaren araudi berriari jarraiki, toxikomaniak eragindako bertan behera uztearen muga handitu egin da, 3 urteko espexxealditik 5 urteko espexxealdira.

Arabako espexxeko Gizarte Zerbitzuek betetzeko Komunitatearen Mesederako Lanak (KML) 36 izan dira 2004ko urrira bitarte, eta horietatik %80 betetzen ari da; Bizkaiko espexxeko

Gizarte Zerbitzuetatik, aldiz, 106, eta 22 betetzen ari dira. Hala ere, datu horiek ez dira behar bezain esanguratsuak, dela %100eko gauzatzea ahalbidetzeko KMLeen posturik ez dagoelako; dela, batik bat, etxeko eta genero-indarkeriaren delituen, eta trafiko-segurtasunaren aurkako delituen araudi berriarekin, KMLetako aukerako zigor nagusia jasotzen duten delituen kopurua izugarri handitu delako.

Erreferentziazat baliagarri izan dakigukeen CID-LARRAURIren 2002ko ikerlan bateko datuen arabera, 1998. urteko apirilean eta maiatzean, Bartzelonako Epaitegietan (Probintzia Auzitegia alde batera utzita, 5 urtetik gorako zigorra duten delituetan eskuduna; baita Instrukzioko Auzitegia ere, huts-egiteetan eskuduna) 1.838 zigor-epai eman ziren, eta horietatik, lagin moduan, data jakin batean guztiz betearazitako 1.259 epaiak hartu ziren (1.425 lagun zigortuak); 714 (%43,2) jabetzaren aurkako delituak izan ziren, indarkeriarik edo beldurrarazterik gabe, 501 (%30,4) “alkoholemia-delituengatik” izan ziren eta 100 (%6) lesio-delituengatik.

Delitu horietatik 809 isun-zigor atera ziren (%57), 241 espetxeratze (%17), komunitatearen mesederako 0 lan eta askatasun-gabetzeko zigorren 333 bertan behera uzte (%23,5).

EAEEn, 2002. urtean zigorturiko 4.645 lagunetatik, 1.678 (%36,1) “alkoholemia-delituengatik” izan ziren, 1.422 (%30,6) ondarearen kontrako delituengatik eta 330 (%7,1) osasun publikoaren aurkako delituengatik.

Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2002ko Txosten Orokorrean jasotzen denez, urte horretan, EAEko hiru espetxeetatik baldintzapeko askatasunean ateratako 331 laguni egin zioten jarraipena: 132 Bizkaian, 123 Gipuzkoan eta 76 Araban.

Datu horiek ikusita, asko arriskatzea izango litzateke honako kalkulu hauek egitea: EAEko epaitegietan eta auzitegietan zenbat bertan behera uzte izan daitezkeen betebeharrekin (KParen 83. art.), zenbat drogak hartzeari uzteko tratamenduarekin (KParen 87. art.), zenbat komunitatearen mesederako laneko zigor (KParen 49. art.) eta zenbat segurtasun-neurri ezar daitezkeen; eta hori guztia jakinda, zenbat psikologo, gizarte-langile, legelari eta langile administratibo beharko litzatekeen Ingurune Irekiko Ekipoak osatzeko.

Oso gutxi gorabehera, eta ausardia handiaz, honako hau kalkula dezakegu: hiru II Eetarako 40 hezitzaile, 10 gizarte-langile, 5 legelari, 5 psikologo eta dagozkien langile administratiboak beharko direla, probintzia bakoitzaren premien arabera banatuta lurraldeetan, betiere Bizkaian handiagoak direla kontuan izanda.

4.2. Zigor-eta espetxe-betearazpen sistemaren ezaugarriak

Hasteko, eta eskematikoki, honako hauek izango lirateke etorkizuneko ereduia definitzeko funtsezko elementuak:

- Politika kriminala (delituen prebentziorako helburuak eta baliabideak) eta gizartearen, hezkuntzaren, lanaren, osasunaren, drogamendekotasunen, berdintasunaren eta abarren arloko politikak zigor-arloko eta espetxe-arloko politiketan (zigorrak betearazteko helburuak eta baliabideak) txertatzea, zigor- eta espetxe-betearazpenaren kudeaketa sailartekoa izanik, Justizia Sailak zuzendu eta koordinatuta, eta kontsulta-organoetako botere betearazlea gainditzen duten gizarte-eragileak eta eragile instituzionalak tartean sartuta.
- Espetxe-betearazpena ahalik eta gardenena izatea, egin behar diren kanpo kontrol guztiak eginda.
- Espetxeetako eta, oro har, zigor-betearazpeneko langileen hautapeneko, prestakuntzako eta funtzionamenduko sistemak berriz definitzea, euren esku-hartzea ez dadin izan zaintza hutsa, euren lanbide-arloko gaitasuna eta esku-hartzea areagotzeko, euren eginkizunari prestigioa emateko eta zigor-betearazpeneko funtzionarioak ere Administrazio publikoaren langilerian txertatzeko.
- Zentro txikien eta espezifikoen alde egitea, makro-espetheen aurrean.
- Zigorra betearazteko modua ahalik eta gehien indibidualizatzea —horretarako ezinbestekoa da norbanakoaren egoera pertsonal eta sozial erreala ezagutzea— eta horren araberako egoitza- eta langile-baliabideen sarea diseinatzea.
- Betearazpena gizarte-arlorra bideratzea —alegia, esku-hartzearen gizarteratzeko alderdiak indartzea eta zigortuen premietara egokitutako zentro eta baliabide espezifikokoak izatea—.
- Espetxe-zigorraren betearazpena eta espetxeak berak zigor- eta neurri-betearazpenaren esparru zabalenean txertatzea.
- Espetxea ez den beste zigorren alde egitea eta horiek garatzea.
- Zigor-betearazpenaren sisteman komunitatea inplikatzeko.

Politikak txertatzea eta sailartekotasuna

Gure ustez, Jaurilaritzaren Sail guztien artean adostutako eta partekatutako erantzukizuna izan behar du zigor-betearazpeneko politikak, nahiz eta Justizia Sailak koordinatu.

Zigor- eta espetxe-arloko jarduera arautzeko ez daude justiziako politikak soilik, baita gizartearen, hezkuntzaren, osasunaren... arloko politikak ere. Politika horiek guztiak txertatzeko, ezinbestekoa da gizarte-eragileen eta eragile instituzionalen parte-hartzea.

Gardentasuna

Guk uste dugu sistemak behar bezala funtzionatzen duela gainbegiratzeko, legegintza-kontrolako eta kontrol juridikzionalako eskumenak garatzea ahalbidetu behar zaiela Eusko Legebiltzarrari eta Botere Judizialari, espetxeratuen eta segurtasun-neurrien mende daudenen eskubideak zorrotz betetzea eta gardentasuna bermatzeko beharrezko baliabideak eta gailuak ezarrita.

Gainbegiratze hori gauzatzeko, honako jardun hauek garatuko dira: baliabide teknikoek hornitzea, eta fiskaltzaren eta espetxeratuen zaintzako epaitegiaren eginkizunak guztiz garatzea; barne-ikuskaritzako zerbitzuak modu egokian antolatzea; Abokatuen Elkargoak tartean sartuta, zigor-betearazpenaren eremuan laguntza juridikoa emateko zerbitzua sortzea; Arartekoaren albokoaren figura sortzeko proposamena egitea, eremu horretako eginkizun eksklusiboak izanik; edo kanpoko gainbegiratze orokorra, aholkularitzako eta kontrolako eginkizun eta guzti.

Langileak

Ezari beharreko eredu horretan teknikariak indartu behar dira, espetxeetako egungo langileen %10-15 bitarte baino ez baitira egun. Horren arabera, zaintza-langileen egungo ratioa aldatu behar da, %85-90 bitarte baita gaur egun, teknikariek garrantzi txikia dutela. Ez da erraza langileen premiak, oro har, zehaztea, eta zentro mota bakoitzaren arabera egin beharko da.

Nolanahi ere, proposatu dugun sistemaren ezaugarri nagusia “birziklatzea” da, zaintzako langileak beste eginkizunetarako birziklatzea, alegia, espetxeratuak gizarteratzeko lagungarri izan daitezen, lanbidearen ikuspegitik begiratuta gogobetetzen duten eginkizunak izanik, eta zaintzan oinarritu beharrean, espetxeratuen eta espetxeko langileen arteko etengabeko elkarreaginean oinarrituriko segurtasunaren ikusmoldetik begiratuta.

Halaber, zigor-betearazpenean lan egiten duten langileek zigor-betearazpenean eskumena duten sailen (Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingoa, Justizia...) mendekoak izan beharko dute organikoki, zigor-betearazpenaren zerbitzu nagusietako eta zentroetako zuzendaritza-taldeak ere horien mendeko izanik funtzionalki, betiere zigor-betearazpenaren sailarteko kudeaketaren funtzionamendu koordinatuaren esparruan.

Normalizazio-printzipioari jarraiki, gure ustez oso garrantzitsua da osasun-arloko, hezkuntza arautuko, eta abarreko langileak Administrazio publikoaren langile arruntak izatea, ez talde espezifiko bat; hartara, esate baterako, Osakidetzaren sare osoan, osasun-langileen mugikortasuna ahalbidetuko da, baita zigor-betearazpenaren eremuetan ere, hala nola espetxe arrunten barruko osasun-zentroetan.

Barruko segurtasun-langile espezifikoak, hezitzaileak, zuzendaritzako langileak, administrazio langileak, etab. soilik izango dira Justizia Sailaren mendeko, eta kasu horretan, euskal administrazioaren baitako mugikortasuna errazteko ahalegina egin beharko da, ahal den heinean, Justizia Administrazioaren zerbitzurako langileekin; hori guztia oso garrantzitsua da espetxe-eginkizunari izen ona emateko, lanbide-“bakartzearekin” loturiko prozesu negatiboak saihesteko, etab.

Zentroak

Espetxe-betearazpenaren eremuan, segurtasunaren kontzeptua errotik aldatzearen aldekoak gara. Hau da, honako hau da gure abiapuntua: zigor-epaian esanbidez bertan behera utzi ez diren eskubide guztiak errespetatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak, ekipamenduak, jarduerak, programak eta politikak garatzea izango da segurtasunaren oinarria, baita zigortuen autonomia indartzea ere. Ildo beretik, gure ustez aurrerapen teknologikoak aplikatu behar dira zentroetako zaintza- eta kontrol-sistemetan. Atxikitzea eta babesa bermatzea ezinbestekoa da, gaur egun zaintza-lanetan aritzen diren langileen gehiegizko bolumena murriztuta.

Zigorra betetzeko eta gizarteratzeko ibilbideak garatu ahal izateko instalazioak sortu eta giza baliabideak antolatu behar dira, kudeaketa modu egokiek eta programak txertatuta.

Proposatu dugun eredu funtsezko elementua da zentro bakoitzeko toki kopurua: Estatuko espetxeetan gaur egungo kopurua baino askoz ere txikiagoa izango da. Langraizeko espetxearen kasuan izan ezik, EAeko gainerako espetxeen tamaina askoz ere “gizatiarragoa” da, eta askoz errazagoa da espetxeratuak ezagutzea, osasun-langileen eta tratamenduko langileen behar besteko ratioari eustea, azpiegiturak espetxeratuen premietara egokitzea, etab. Zentro arrunten eta zentro irekien arteko erabateko bereizketari esker, azpiegiturak, langileak eta programak egokitu daitezke zentroan espetxeratutako enregimen-egoeraren arabera, adibidez, segurtasunaren baldintzak eta kostuak askotariko egoeretara egokituta, eta horrela, zentrotik egunero ateratzen diren lagunei eta ohiko moduan ateratzeko aukerarik ez duten lagunei irizpide homogeen desegokia aplikatzea saihestuko da.

Europar Batasuneko herrialdeetako egungo praktikei jarraiki, eta egindako ikerlanen arabera, makro-espetzeak baztertea gomendagarria da, gehienez 350 lagunentzako zentroen alde eginez. Ondorioztatu dutenez, zentro espezifikoek eta “txikiak” aukera ematen dute araudian zigorrei eman zaien helburuaren (berriz hezte eta gizarteratzea) araberako funtzionamendua izateko, eta segurtasun eta kudeaketa eraginkorra bermatzeari dagokionez, funtzionalenak dira zentro horiek, bai askatasun-gabetuei dagokienez, baita langileei dagokienez ere.

Hortaz, eta zentro, zerbitzu eta/edo programa bakoitzean espetxeratuen kokapenari dagokionez, espetxeratuen banan banako profila kontuan hartuta egin beharko da (delitu mota, zigorraren iraupena, osasun-egoera...etab). Zigor-betearazpenaren neurri bakoitzaren aplikazioa ahalik eta gehien egokitu behar da profil bakoitzera, zigorraren, segurtasunaren edo berri zizarteratzearen eskakizun-irizpideei jarraiki.

Zigor-betearazpenaren zerbitzuak egokitu egin behar dira oinarritzko jarraibideetara, hain zuzen ere, ohiko erregimenean espetxeratutako biztanleriaren proportzioa murriztu behar dela (gehienez ere espetze-zigorraren %60 betetzea ohiko erregimenean), eta erregimen irekiaren zentro irekiak, mendeko unitateak, espetxez kanpoko baliabideak eta baldintzapeko askatasunaren alde egin behar dela (%40) dioten jarraibideetara.

Gure ustez, porrot egiteko beldurrak ez du baldintzatu behar ingurune irekia indartzeko benetako apustua, eta erronka horren ondorioak geure egin behar ditugu. Zigortuen %40k espetze barruko ohiko erregimena ez den beste neurrietan zigorra bete dezan da helburua, hau da, gizarteratzeko zentroetan, mendeko unitateetan edo espetxez kanpoko baliabideetan.

Katalunian, lau zigortuetatik bat baino gehiago hirugarren graduan dago, eta Estatuko gainerako tokietan eta EAEn %12-15 bitarte dabil proportzioa. Horretaz gain, azken urtean %14ko porrot-maila izan dute Katalunian —bigarren gradura itzultzea eragin duen lege-hausteari esaten zaio porrota, kasu horretan—, eta datu hori onargarria da.

Zentroen barruko gune fisikoak zigortuaren intimitatea eta autonomia bermatu behar ditu, eta, gehienbat, espetxetik ateratzeko prestakuntza eragiten duen edozein programa mota garatzera bideratu beharko litzateke espazio hori.

Kokatzeko garaian, zentroetarako eta zerbitzuetarako sarbide-sistemak eta komunikazioak, eta biztanleriaren lurralde-banaketa hartu behar dira aintzat, langileei nahiz senitartekoei edo sistemarekin lankidetzan aritzen diren gizarte-erakundeei joan-etorriak errazteko.

Ez ditugu xehetasunak zehaztuko hemen, baina egungo azpiegitura zaharkituak amortizatzeko eta ixteko premiak eragin ditu jardun guztiak; hala ere, logikoa denez, ez gara hasiko zentroak eraisten, eta pixkanaka-pixkanaka zentro-sare bat sortuko dugu horien ordez, betiere ingurune irekiko neurriak eta gizarteratzeko zentroak indartzeko printzipio estrategikoari jarraiki, horiek guztiak garatuta zentro arrunten toki-premia murriztuz dadin, eta zentro arruntek ez dezaten planaren "indar guztia xahutu". Langraizeko, Basauriko eta Martuteneko espetxeen orubeetan azpiegitura berriak eraikitzea egokia ote den baloratu beharko da.

Espetxearen erabilera murriztea

Horretaz guztiaz gain, ezinbesteko iritzi diogu gatazkak ebazteko ordezko prozedurak indartzeari, auzipetzeko eta epaia emateko unean bertan hasita, baita honako hauek indartzeari ere: espetxea ez den bestelako zigorrak (esaterako, komunitatearen mesederako lanak), zigorra baldintzapean bertan behera uztea, zentro psikiatrikoetan eta drogak hartzeari uzteko zentroetan sartzeko segurtasun-neurriak, tratamendu ambulatorko neurriak, prestakuntza-programak, etab.; horretarako, organo judizialei auzipetu bakoitzaren (eta kasuan kasu, biktimaren) egoera pertsonalaren eta sozialaren berri emateko informazio-sistema sendoa behar da. Esperientziak erakutsi duenez, azken batez, espetxea ez da batere eraginkorra, ezta errentagarria ere, ez zigortuak gizarteratzeko, ez berrerortzea saihesteko.

Espetxe-betearazpenaren programak

Zentro berriak eraikitzea ez da aski zigortuen oinarritzko giza eskubideen duintasuna eta errespetua bermatzeko, eta gizarteratzeko helburua beteko dela bermatzeko. Azpiegiturak modernizatu behar dira, baina planteamenduak ere berritu behar dira, esku-hartze oro gizarteratzera bidera dadin, eta zigor-epaian mugatu ez diren eskubideak gara daitezten.

Hori horrela izanik, Sartzeko, Ebaluatze eta Ibilbideetako Unitateak funtsezko zeregina betetzen du banan banako arreta emateko garaian, eta horretarako, helburuak betetzea ahalbidetuko dioten programak izan behar ditu. Beraz, behar-beharrezkoa da programak diseinatzea, planifikatzea eta garatzea honako arlo hauetan: osasunaren eta osasun-asistentziaren, hezkuntzaren, lanbide-prestakuntzaren eta lanaren arloetan; gizarteraren eta familiarren laguntza psikologikoan eta ekonomikoan; informazio eta aholkularitza juridikoan, autonomian eta parte-hartzean; aisialdian, kulturen eta kirolean; atzerritarrei eta gutxiengo etnikoei laguntza ematean, eta irteerako laguntzan.

Xehetasun teknikoetan sartu gabe, espetxe-betearazpenaren programa horiek garatzeko funtsezkoak diren irizpideak zerrendatuko ditugu.

Osasunarekin hasita, gure ustez, programaren egitura orokorrak bat etorri behar du herritarrentzat, oro har, dagoen egungo egiturarekin: lehen-mailako asistentzia iraunkorra, ospitaleratzeak, asistentzia espezializatua, osasun mentaleko unitateak eta drogazaleen tratamendurako unitateak.

Era berean, instalazioetako eta zerbitzuetako higiene- eta saneamendu-politika guztiak eta prebentzioko politika guztiak ere horren barnean hartuko dira, baita ospitaleko asistentzia eta osasunerako hezkuntza ere. Irteera mugatuko zentroetan, erizaintzek unitate anbulatorioen moduan funtzionatuko dute, ez, inola ere, ospitaleratzeetarako oheak dituzten ospitale-unitateen moduan.

Tratamendu espezifikotako programak eskaini behar dira, bere borondatez horietan sartu nahi duen ororentzat; adibidez, mendekotasun-portaeren kasuan, edo genero-indarkeriaren kasuetan, sexu-erasotzaileentzako tratamenduak (ikus genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 42. art.).

Zigorra betetzen ari direnen egoera pertsonalera egokitu behar dira hezkuntza-programak. Espetxeen Legearen eta Erregelamenduaren arabera, espetxealdian hezkuntzarako eskubidea badagoen arren, eskubide horren garapena oso mugatua da.

Askatasunik gabe daudenen nortasunaren garapen integralerako, hezkuntzarako eta kulturarako eskubideen egiazko gauzatzeak ez du lotura handirik errealitatearekin. Hori dela eta, eguneroko jardueran sartu behar dira oinarrizko prestakuntza, alfabetatzea eta hezkuntza formala, gune, baliabide eta bitarteko egokiak bermatuz.

Lanbide-prestakuntzako eta laneratzeko programak ere oso garrantzitsuak dira. Gaur egun, EAeko espetxeetan egiten dira gizartearen eta lanaren arloko prestakuntzarako zenbait jarduera, baina instituzioen artean koordinatzeko eragozpenek, eta instalazio egokirik nahiz bitarteko eta programa egokirik ez izateak eraginda, gabezia handiak daude. Baina egia esan behar bada, espetxeratuek, oro har, duten hezkuntza-maila txikia den arren, gehienek sumatzen dute lan-merkatutako sarbidea ahalbidetuko dieten prestakuntza jasotzeko premia dutela. Beraz, ezinbestekoa da trebetasunak eskuratzea ahalbidetzeko eskaerak atzematea, eta horretaz gain, lan-tailerrak eskainita, espetxetik irtendakoan laneratzeko lagungarri ere izango da. Une honetan, EAEn zigortutakoen %22 soilik ari da lanean soldatapeko produkzio-lanen batean.

Lankide-prestakuntza eta produkzio-lana kudeatzeko egitura sortu behar dugu, nahi duten espetxeratuek aukera izan dezaten prestakuntza jasotzeko eta lan duina izateko. Horretarako, administrazio publikoetako, sindikatueta eta enpresa-erakundeetako kontratazio- eta lan-zerbitzuekin lankidetzan aritu behar da.

Orobat, garrantzitsuak dira laguntza psikologikoa, ekonomikoa, gizarte-arlokoa eta familia-laguntza emateko programa espezifikoak. Norberak bere egoerari aurre egitea lortu nahi dute, eta egoera hori gainditzea, beharrezko laguntza eta bitarteko terapeutiko guztiak eskainita.

Informazio eta aholkularitza juridikorako programei ere arreta berezia eman behar zaie. Espetxeratu gehienek ez dute justizia-sistema ezagutzen eta ez dute aholkularitza kualifikaturik; hori dela eta, funtsekotzat jotzen dugu profesionalek informazioa eman diezaieten eta bidera ditzaten. Aholkularitza juridikoarekin batera, Espetxeratuen Bitartekotza Zerbitzua ere sortu behar dela uste dugu, legelari talde batek osatua, espetxe barruko gatazkak ebartziko dituen, diziplina-sistemara jo gabe.

Espetxeratuen parte-hartzeko eskubidearen inguruko espetxe-erregelamenduaren ondorio dira autonomia, parte-hartzea eta kanpoarekiko komunikazioak indartzeko programak. Egia esateko, orain eskubide horiek ez dira baliatzen, baina espetxeratuak berriz gizarteratzea lehentasunezko helburu duen eredu batean eskubide horien errespetua bermatu behar da.

Neurriak erabakitzeke garaian, honako hauek izan behar dira kontuan: komunikatzeko eta adierazteko gizarte-trebetasunak hobetzen laguntzea, jardueretan parte hartzeko teknikak eta pizgarriak abiaraztea, ateratzeko baimenatarako prestatzea, edo senitartekoentzat ate irekien egunak antolatzea.

Aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduerak egiteko, instalazio, programazio eta bitarteko egokiak behar dira, bazterketarik gerta ez dadin eta espetxeratu guztiei horietarako sarbidea bermatzearen. Teknologia berrietarako eta informatikarako, arte plastikoetarako eta arte eszenikoetarako sarbidea edo erlijio-arreta ere sartu behar dira programetan.

Oraingo eta etorkizuneko erronka garrantzitsuenetako bat da honako hau: espetxeraturiko atzeritarren kopuruak gora egiteak eragindako premia berrietara (besteak beste, itzulpen-zerbitzu iraunkorra, kulturarteko bizikidetzazko programak eta gizarteratzeko lan espezifikoak) egokitzea betearazpenaren sistema, baina egungo immigrazio-politika oztopoa besterik ez dela gogoan izanda.

Egia esan behar bada, espexeratu horiek eta bertakoek ez dute harreman berdina zigor-sistemarekin; izan ere, legerian bertan ezberdintasunak ezartzen dira bai zigorra betetzeko moduari dagokionez, bai zigorra bete ostean Espainian jarraitzeko edo ez jarraitzeko egoerari dagokionez.

Horretaz gain, kasu askotan, atzerritarren profila ere bestelakoa izaten da, eta gehienetan, ez daude errotuta. Datuen arabera, EAEko espexeetan 40 nazionalitate biltzen dira.

Hori dela eta, atzerritarrak izateagatik desabantaila-egoerarik izan ez dezaten ahalegindu behar dugu. Espexeetako langileek prestakuntza espezifikoa jaso beharko dute, jarrera ezegokirik har ez dezaten. Era berean, interpreteei sarbidea erraztu behar zaie, hizkuntza nagusiak ikasteko aukera eman behar zaie langileei, eta atzerritarren erlijioa eta kultura errespetatuko direla bermatu behar da.

Demagun ijito-herriaren ezaugarriak kontuan izan behar direla. Estereotipo iraintzaileek eragin handia izan dezakete zigor-sisteman jasotako tratuan, eta eragozpen ere izaten dira espexeratuen gizarteratzera bideraturiko eskubideak baliatzeko.

Bukatzeko, espexetik ateratzerako laguntza-programak aipatuko ditugu. Gaur egun, espexetik atera berria den edonoren erronka nagusia izaten da espexeratzearen ondorioei aurre egin behar izatea.

Espexeratuen egoera sozialari buruzko ikerketa enpirikoei jarraiki, espexetik ateratakoan hiru premia dira ezinbestekoak gizarteratzeko bermea izate aldera: kanpoan zain norbait izatea, bizitzeko tokiren bat izatea eta ekonomikoki egonkortasuna eta independentzia emango dion lana izatea.

Eremu horretako laguntza-programa orok hiru arlo horietan eragin behar du (familia/ingurunea, etxebizitza, lana), gertuko instituzioekin ados jarrita zerbitzuak indartua eta iragaite-unitateak sortuta, batez ere, gizarteratzeko arazo handiena dutenentzat, funtsezkoa baita espexetik ateratzean deserrotzea kroniko bihur dadin saihestea.

Oro har, oinarri-oinarrizkoa da gizarte-zerbitzuetako berezko egitura antolatzailea izatea, zigor-betearazpenaren sistemarekin loturik, eta bitartekoez eta giza baliabideez hornituta. Tokiko, probintziako eta erkidegoko instituzioen gizarte-zerbitzuekin eta elkarte-sarearekin koordinatuko da egitura hori, komunitatearen ikuspegitik begiratuta programak txertatuak egon daitezten.

Esku-hartze adostuari esker, bazterketa-egoerak atzeman ahal izango dira eta espetxetik ateratzean espetxealdi luzeak jendearengan eragin ditzakeen ondorio negatiboak neutralizatu.

Komunitatearen inplikazioa

Ikusi dugu EAEn badagoela elkarte eta GKE asko espetxea humanizatzeko zereginetan. Esperientzia zabal eta askotariko hori txertatu beharko du eredu berriak, eraginkortasun handiena lortzearren.

Zorionez, EAEn kasuan instantzia horiek metatu dute dagoeneko esperientzia garrantzitsua, eta jarduera esanguratsua garatu dute, hein batean, espetxe-administrazioaren eraginkortasun eza eta baliabide gabezia konpentsatuz.

Zigor-betearazpenean sartutako biztanleak gizarteratzeko lanetan gizartearen inplikazioa indartu beharko dugu, eta horretarako, instituzio publikoen eta pribatuen, komunitateko elkarte-sarearen eta borondatezko langileen ekintza koordinatua ezinbestekoa da.

Azkenik, gizarteari honako hau ikusarazi behar diogu: zigor-betearazpenaren eredu sozialagoa eta erredukzionistagoa lortzeko ahalegin hau berari ere badagokiola eta eragiten diola. Ezin ditugu begiak itxi errealitate horren aurrean, eta instituzioen egitekoa da honako hauek azaltzea: proposamen berri hau ezarrita sistema orekatuagoa lortuko dugula, guztiontzako segurtasun handiagoa eta eraginkorragoa lortuko dugula, eta biktimen ikuspegia eta beharrak gero eta gehiago aintzat hartuko direla, biktimen eta arau-hausleen interesak betetzea ez baitira errealitate kontrajarriak eta baztertzailak.

5

Eranskina

5.1. Zerbitzu nagusien antolaketa administratiboa

5.1.1. Justizia Saila

Eskumenen bat hartzeko, edo transferitu aurretik, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza sortu beharko litzateke.

Justizia Sailaren mendeko arloetako bat izango da Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, Gazteen Justiziako arloarekin, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako arloarekin, Biktimen eta Zigor Bitartekotzarako arloarekin, Baliabide Materialen arloarekin, Giza Baliabideen arloarekin eta Zigor Justiziaren arloko Azterlan eta Prestakuntza Zentroarekin.

Ekonomiaren eta langileen kudeaketa zuzenean Justizia Sailaren Baliabide Materialen eta Giza Baliabideen Zuzendaritzaren mende egongo da (bereziki garrantzitsutzat jotzen baitugu zigor-betearazpenaren langileak ez izatea talde espezifikoak, baizik eta Administrazioaren barruan mugikortasuna egotea nahi dugu), eta, besteak beste, zigor-betearazpenaren sistema osoaren kudeaketa ekonomikoa antolatzea eta gainbegiratzea izango ditu egitekoak. Alegia, ordainketak eta diru-sarrerak planifikatzea, txostenak egitea, premiak planifikatzea edo inbertsio-proposamenak egitea. Langileen antolaketari eta kudeaketari dagokionez, arlo bakoitzeko teknikarien kokapena eta mendekotasuna zehaztu beharko luke, eta kontratazioko premien eta mekanismoen gainean, txanden, ordutegien, lan-arriskuen prebentzioko programen, eta abarren gainean erabakiak hartu.

Zuzen-zuzenean Justizia Sailaren mendeko Azterlan eta Prestakuntza Zentroak Zigor Justiziarekin, oro har, loturiko eginkizunak izango ditu, zigor-betearazpenaren arloko eginkizun espezifikoetz gain. Zigor-betearazpenari dagozkion eginkizunak honako hauek izango dira: langileen prestakuntza eta birziklatzea, eremu horretako zereginak betetzeko sarbide-sistemak arautzea, argitalpenak eta dokumentazio-zentroa.

Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren mendean hiru sektore-arlo egongo dira: Zentroak, Zerbitzuak eta Erregimena Administrazio atala; Zigor Betearazpenaren Programen Diagnosi, Sailkapen eta Kudeaketa atala, eta Ingurune Irekiaren eta Ingurune Irekiko Zigor Neurrien atala.

Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren mendeko zeharkako arloak honako hauek izango dira: Koordinazio Instituzionala, Informazio eta Planifikazio Estrategikoaren Kabinetea, eta Aholkularitza Juridikoaren eta Ikuskaritzaren arloa.

5.1.2. Helduen zigor betearazpenaren zuzendaritzaren sektore-arloak

Zentroak, zerbitzuak eta erregimena administrazio eta kudeatzeko atalaren eginkizuna izango da ohiko erregimeneko zentroen funtzionamendua gainbegiratzea, baliabideen inbentarioa egitea, segurtasunaren eta zaintzen arloko programak eta protokoloak diseinatzea eta gainbegiratzea, eta lan-arriskuei buruzko planak aplikatzea.

Espetxeratuak eta funtzionarioen barruko segurtasuna zuzendu eta koordinatzea ere atal horren zeregina izango da, administrazio-bulegoak antolatzea, gertakariak aztertzea, lekualdatzeak eta eramateak antolatzea, eta suerta daitekeen gertakizun orori berehalako erantzuna ematea. Komunikazioei dagokienez, teknologia aurreratuen erabilera kontuan izango duen programa integrala garatzeko lagungarri izan beharko du.

Zigor-betearazpenaren programen diagnosirako, sailkapenerako eta kudeaketarako atalean sarreren, ebaluazioen eta ibilbideen unitatea, eta programen kudeaketarako unitatea bereiziko dira. Hori horrela izanik, lehenengo unitateak honako eginkizun hauek izango ditu: batik bat, zigortuak zerbitzuetan, zentroetan eta programetan banatzeko irizpideak eta mekanismoak ezartzea eta gauzatzea, eta zerbitzu, zentro edo programa horien barruko banaketa ere ezartzea eta aplikatzea.

Horietaz gain, diagnosa egiteko protokoloak aplikatu eta ebaluatu ere egin beharko ditu, baita zigortuari dagokion hasierako zigor-betearazpenaren zerbitzua zehaztu eta horri jarraipena egin ere. Horretarako, zigortuen profilak hartu behar dira kontuan, eta neurri bakoitza aplikatzea egokia ote den ala ez.

Programak kudeatzeko unitatea, aldiz, honako honetaz arduratuko da: proposamen honetan aurkeztu dugun zigor-betearazpenaren ereduaren lehen ere ezinbestekotzat jo ditugun programak abiarazi eta garatzen direla bermatzeaz.

Bukatzeko, gizarteratzea lehenesten duen ereduaren alde egiten dugulako sortuko dugu ingurune irekiaren eta ordezeko zigor-neurrien atala. Atal horren barnean hartuko dira erregimen irekiaren eta gizarte-zerbitzuen unitatea, eta askatasuna kentzen ez duten zigorren eta neurrien zerbitzua. Lehenengoari dagokio zentro irekien edo gizarteratzeko zentroyen funtzionamendua antolatzea eta gainbegiratzea, baita mendeko unitateena ere. Horretarako, ingurune irekiaren berezko programak planifikatu eta gainbegiratu behar dira, baliabide-premiak koordinatu, edo jardun-proposamenak ebaluatu.

Askatasuna kentzen ez duten zigorren eta segurtasun-neurrien zerbitzuak, aldiz, honako zeregin hau izango du: ordezeko zigor-neurrien eremuan aplika daitezkeen baliabideak eta programak bilatzea.

Esan gabe doa aurrekontuaren eta langileen kudeaketa eskumen partekatua izango dela Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren zerbitzu nagusien eta zentroetako zuzendaritzataldeen artean, zigor-betearazpenaren sisteman jarduten duten sistematik kanpoko baliabideak eta langileak koordinatzea bezalaxe. Modu koordinatuan funtzionatzera behartuta daude, komunikazioko eta informazioa elkartrukatzeko mekanismo iraunkorren bitartez.

5.1.3. Helduen zigor betearazpenaren zuzendaritzaren zeharkako arloak

Informazio eta planifikazio estrategikoaren Kabinetea arduratuko da sistemaren funtzionamendua kontrolatzeaz eta horren jarraipena egiteaz, estatistikaren ikuspegitik begiratuta, berezko sistema informatiko integratuaren bitartez. Elementu guztiei buruzko informazio zehatza aldiro izanez gero, kudeaketa azkarra eta koordinatua egiteko aukera izango litzatekeela kontuan izan behar da.

Aholkularitza juridikoaren eta ikuskaritzaren zerbitzu-arloaren egitekoa izango da materiala lantzea, zigor-betearazpenaren sistemaren barne-legeria arautzeko materiala, alegia; baita Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea ere; baliabide administratiboekin eta erantzukizun juridikoekin loturiko guztia ere Kabineteak egingo du. Halaber, Eusko Legebiltzarraren mendeko zigor-betearazpena gainbegiratzeko eta ebaluatzeko instantziekiko hartu-emanak eta espetxeratuaren aholkularitza juridikoa antolatzea ere Kabineteari dagokio, Arartekoaren bitartez, Espetxeen euskal behatokiaren bitartez, foroen bitartez eta mendeko batzordeen bitartez.

Koordinazio instituzionalaren arloak honako eginkizun hau izango du: zigor-betearazpenaren sistemak modu antolatuan eta konpaktuan funtzionatzea sistemaren baitan jarduten duten

gainerako sistemekin, betiere arloaren zereginetan gainerako instituzioak eta gizarte-erakundeak tartean sartzeko ahalegina eginda. Era berean, gazteen justizia-sistemarekin koordinatzeaz ere arduratuko da, bi sistemen barnean har baitaitezke 18-21 urte bitarteko gazteak. Organo administratiiboak gauzatuko du zigor-betearazpenaren sailartekotasunaren funtsezko printzipioa ere.

5.1.4. Kide anitzeko organoak


Diseinu honen oinarriko printzipioekin diziplinartekotasuna, gizarte-politikak zigor-betearazpenaren politikan txertatzea, eta zigor-sistemako eta, oro har, gizarteko eragileen inplikazio zabala koherente izanik, organigraman eta kudeaketa administratiiboaren eredian jaso beharko dira printzipio horiek.

Horretarako, Koordinazio instituzionalaren arloaren mendeko, Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Batzorde bat sortuko da, zigor-betearazpenaren sisteman langileak eta/edo jardun-programak dituzten sailetako arduradunekin (Herrizaingoa, Osasuna, Hezkuntza, Lana, Gizarteratzea, Gizarte Gaiak, Immigrazioa, etab.).

Horren osagarri, EA Eren banaketa instituzionalari jarraiki, Zigor-betearazpenaren Institutuzioarteko Batzordea sortu beharko litzateke, Foru Aldundiek eta Udalek parte hartuta.

EAE osorako zigor-politika uniforme ebaluatzeko, adosteko eta sistematizatzeko, ezinbestekoa izango da Zigor-justiziaren Administrazioaren eta Zigor-betearazpenaren Sistemaren arteko harremanetarako Batzordea sortzea, hau da, euskal administrazio publikoen multzoa EA Eko Botere Judizialarekin, Fiskaltzarekin eta Abokatuen Elkargoekin komunikatuko duen instituzioarteko batzordea.

Horrekin guztiarekin batera, egoki iritzi diogu zigor- eta espetxe-politikaren inguruko kontseilu edo plataforma zibikoa sortzeari, non askotariko gizarte-eragileak uztartuko diren, ebaluatzeko eta proposamenak egiteko eginkizun hori parte-hartze komunitario zabalarekin osatzea ahalbidetuz.



5.2. Kostua eta aurrekontua

Zigor-betearazpenaren eremuko eskumenak geure gain hartuz gero, zigor-betearazpenaren politika gizarte-politikaren zatitzat hartuko eta sartuko duen sistema abiarazteko aukera erreala izango dugu, ongizate Estatuaren testuinguruan.

Guk nahi genukeen eredia azaldu dugu, honako hauen aldeko urrats sendo eta guzti: eraginkortasun prebentibo-indibidualaren (hau da, berrerortzea saihestea norbanakoaren gaineko esku-hartze positiboaren bitartez) eta gizarteratzearen aldekoa, eta jendearen askatasuna eta berdintasuna gauzatu eta egia bihurtuko dituzten baldintzak sustatuta. Gaur egun zein egoera dagoen jakinda, dagoeneko marraztuta dauden zenbait jardun gida ditzaketen printzipioak, helburuak eta ildoak garatu ditugu, baina eztabaida eta azterketa eragiteko, eredu horren kostu erreala zenbatekoa izan daitekeen jakin behar da, gutxi gorabehera bada ere.

Gaur egun ezinezkoa da jarraian aurkeztuko dugun gutxi gorabeherako kalkulua baino zehatzagoak egitea. Har ditzagun erreferentziatzat, ez besterik, azterketa ekonomiko zehatzik egin gabe dagoela jakinda.

Estatuaren Aurrekontu Orokorrak aztertuz gero, honako datu hauek aterako ditugu: gaur egungo espetxe-sisteman eta, zehazkiago, EA Eren sisteman zenbatekoak diren langileen gastuak, ondasunetako eta zerbitzuetako ohiko gastuak, inbertsio errealak eta transferentzia arruntak. Azterlan horretatik ateratako ondorioei erreparatuta, esan dezakegu Erkidegoko hiru espetxeetan gastu arrunten aurrekontua 20,3 milioi eurokoa dela.

Bestalde, espetxeratu bakoitzeko urteko gastua —azpiegituren kostua alde batera utzita— 14.600 euro da (730.122.230 euro aurreikusita 2004ko Aurrekontu Orokorretan, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren lurraldean dauden batez besteko 49.973 lagunentzat) eta Katalunian, espetxeratu bakoitzeko urteko gastua 20.000 euro da. 2006. urterako, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontua 851.000.000 eurokoa da. EA Eren zigor-betearazpenaren sistemara bideratutako aurrekontuaren zati handiena (%70) gaur egun langileen soldatak ordaintzeko izaten da; aldiz, espetxeratu bakoitzeko lanaren, prestakuntzaren eta asistentziaren arloko programetarako %7 bideratzen da. Beste %1,7 soilik geratzen da instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko inbertsioak egiteko; horrela, azken urteotan, Administrazio zentralak ez du milioi erdi euro ere inbertitu EA Eko hiru espetxeetan.

Kataluniako Espetxe Administrazioak egindako kalkuluen arabera, espetxeratu baten tokiak urtean 20.000 euroko gastua dakar (egunean 56,5 euro). Zentro motaren arabera kostua alda daiteke. Hori horrela izanik, zentro arruntetan 56,5 euro/egun baldin bada, zentro ireki batean 21,6 euro/eguneko, mendeko unitateetan 43,78 euro eta ordezeko zigor-neurrietan 3,02 euro.

Zigor-betearazpenaren eredu hau modernoa eta berritzailea da, zigor-betearazpenaren sistema aurreratuenetan oinarritua (Kanadakoan edo Europako herrialde eskandinaviarretakoan), eta politikaren eta gizartearen aldetik babes sendoa lortu behar du, abiarazteko baliabide eta guzti, eta inolako baldintzarik edo gorabeherarik gabeko garapen-plana duela.

Eredu horren garrantzia eta handitasuna dela eta, epe luzerako plan gisa ulertu behar dugu. Bitarte horretan, inbertsioen eta obrak gauzatzearen inguruko urte anitzeko planak burutu beharko dira, baina logikari jarraiki, eredu hau lehenago edo beranduago ezartzea baldintzatuko duten hamaika egoera suerta daiteke.

Hiru fase izango dira

Lehenengo fasean, gizarteratzeko bi zentro eraikiko dira, bi osasun-unitate sortu, lau mendeko unitate eta emakume zigortuentzako zentro arrunt bat, guztira 400 eta 600 toki berri artean sortuta. Basauriko espetxea itxi egingo da.

Bigarren fasean honako hauek eraikiko dira: gizarteratzeko zentro bat, gizon helduentzako zentro arrunt bat, eta gazteentzako beste zentro arrunt bat, guztira 375 eta 500 toki berri artean sortuta. Martuteneko espetxea itxi egingo da.

Hirugarren eta azkeneko fasean, gizon helduentzako zentro arrunt bat eraikiko da, eta mendeko bost unitate sortuko dira, 275 eta 350 toki berri artean sortuta. Langraiz Okako espetxea itxi egingo da.